

Euskal Autonomia Erkidegoko CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailua




ERABILERA-ESKULIBURUA **biomasa + lurzorua**



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



Euskal Autonomia Erkidegoko CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailua



ERABILERA-ESKULIBURUA

biomasa + lurzorua



© Ihobe S.A., 2021eko abendua

Argitaratzailea:

**Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun
eta Ingurumen Saila**

Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua

48011 Bilbo

Tel: 900 15 08 64

Edukia:

Dokumentu hau NEIKER-Tecnaliak sortu du Ihoberentzat, Ihobek eta Neikerrek 2020an sinatutako hitzarmenaren esparruan (3. ekintza: «*Xurgapenen kalkulagailua - PIMA EKOSISTEMAK – METACARBON*»). Egileak: Óscar del Hierro, Ainara Artetxe eta Patricia Gallejones.

Diseinua: dual comunicación y diseño



Liburu honen edukiak, edizio honetan, lizentzia honen babespean argitaratu dira:
Errekonozimendua - Ez komertziala - Eratorritako obrarik gabe 3.0 Unported, Creative
Commons (informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	1
2.	Tresna	3
3.	Nori zuzenduta dago kalkulagailua?	3
4.	K kalkulagailua erabiltzeko bete beharreko baldintzak	4
5.	K kalkulagailua erabiltzeko jarraibideak, pausoz pauso	4
5.1.	Edukia eta jarraibideak	6
5.2.	Proiektuaren datu orokorrak	8
5.3.	Etorkizuneko baso-biomasa	10
5.4.	Lurzorua	12
5.5.	Co ₂ emaitzak	15
5.6.	Emisioak konpentsatzeko ekimenetan inskribagarriak diren xurgapenen laburpena	17
5.7.	Xurgapen-faktoreak	19
5.8.	Kartografia lagungarria	19
6.	Kasu praktikoetan aplikatzea	20
6.1.	Aldaketak laborantza-lurren kudeaketan: maneiuren eta/edo intsumoen ondoriozko hobekuntzak	20
6.2.	Aldaketak laborantza-lurren kudeaketan: belarki-laboretik labore iraunkorrera iragatea.	25
6.3.	Aldaketak baso-kudeaketan: maneiuren eta/edo intsumoen ondoriozko hobekuntzak	29
	erreferentzia bibliografikoak	35
i.	eranskina. proiektu-tipologiak.	36
a.	proiektuak baso-lur bihurtzen diren lurretan.	37
b.	proiektuak kudeaketaz aldatzen diren baso-lurretan.	38
c.	proiektuak suak hartutako baso-eremuetan baso-masa bat ezartzeko jarduketei buruz	38
d.	beste proiektu batzuk, baso-kudeaketan oinarrituak	39
e.	proiektuak kudeaketa aldatzen duten laborantza-lurretan	40
f.	proiektuak kudeaketa aldatzen duten larreetan	41
g.	proiektuak larre bihurtzen diren laborantza-lurretan	42
ii.	eranskina. eae-ko udalerrien zonakatze klimatikoak.	44
iii.	eranskina: tresnan txertatutako mapa litologiko sinplifikatua. talde litologikoak.	48
iv.	eranskina : egungo lurzoruko karbono organikoaren kalkulua (soc _a) lurzoruaren analititik abiatuta.	49
v.	eranskina. karbono dioxidoaren guztizko xurgapena: lurzorua eta biomasa.	50
vi.	eranskina. baso-lurrak: lurzoruko egungo karbonoaren (soc _a) galerak, baso-aprobetxamendu mota ezberdinei lotuak.	51
vii.	eranskina. baso-lurrak: karbono organikoa lurzoruan, amaieran (soc _f). talde litologikoei lotutako karbono-izakinak lurzoruan.	52
	eranskina viii: baso-lurrak: enbor-zuraren eraldaketa aireko biomasan finkatutako karbonoan (cveg _a).	53
ix.	eranskina. baso-lurrak: baso-espezieen xurgapen-faktoreak (cveg _f).	54
x.	eranskina. eranskina. laborantza-lurrak eta larreak karbono organikoa lurzoruan, amaieran (soc _f).	57
xix.	eranskina. laborantza-lurrak eta larreak: maneiuari eta intsumoei buruzko orientabideak.	
	58	
xii.	eranskina. laborantza-lurrak eta larreak: flu, fmg eta fi faktoreen balioak, eskualde klimatikoaren arabera	60
xiii.	eranskina: laborantza-lurrak eta larreak: karbono biomasan (cveg _a eta cveg _f).	62

TAULAK

1. taula: Arabako udalerrien zonakatze klimatikoa, ipccren sailkapen-ereduaren arabera (ipcc, 2006).
 map: prezipitazioen urteko batez bestekoa (mm); etp: ebapotranspirazioa (mm); mat:
 temperaturaren urteko batez bestekoa (°c). map/etp: prezipitazioen eta ebapotranspirazioaren
 urteko batezbestekoaren arteko ratioa. zona klimatikoa (zk): zk 1: epel beroa, lehorra; zk 2: epel
 beroa, hezea. udalerrri bakoitzeko datu klimatikoak miteco (sifa)ren nekazaritzako datuen
 informazio geografikoko sistematik eskuratu ziren. 45
2. taula: Bizkaiko udalerrien zonakatze klimatikoa, ipccren sailkapen-ereduaren arabera (ipcc, 2006).
 map: prezipitazioen urteko batez bestekoa (mm); etp: ebapotranspirazioa (mm); mat:
 temperaturaren urteko batez bestekoa (°c). map/etp: prezipitazioen eta ebapotranspirazioaren
 urteko batezbestekoaren arteko ratioa. zona klimatikoa (zk): zk 1: epel beroa, lehorra; zk 2: epel
 beroa, hezea. udalerrri bakoitzeko datu klimatikoak miteco (sifa)ren nekazaritzako datuen
 informazio geografikoko sistematik eskuratu ziren. 46
3. taula: Gipuzkoako udalerrien zonakatze klimatikoa, ipccren sailkapen-ereduaren arabera (ipcc, 2006).
 map: prezipitazioen urteko batezbestekoa (mm); etp: ebapotranspirazioa (mm); mat:
 temperaturaren urteko batezbestekoa (°c). map/etp: prezipitazioen eta ebapotranspirazioaren
 urteko batezbestekoaren arteko ratioa. zona klimatikoa (zk): zk 1: epel beroa, lehorra; zk 2: epel
 beroa, hezea. udalerrri bakoitzeko datu klimatikoak miteco (sifa)ren nekazaritzako datuen
 informazio geografikoko sistematik eskuratu ziren. 47
4. taula: lurzoruko karbonoari aplikatutako aprobetxamendu-faktoreak, baso-aprobetxamendu moten
 arabera. 51
5. taula: karbono organikoaren erreserba lurzoruaren lehen 30 cm-etan (t c/ha), talde litologikoaren
 arabera. 52
6. taula: enbor-izakinak biomasan finkatutako karbono bihurtzeko erabilitako datuak. iturria: neiker,
 2014. 53
7. taula: espezieen taldekatzea, 6. taulan zehaztutako balioak esleitzeko. iturria: neiker, 2014. 53
8. taula: espainiako baso-espezieen xurgapen-faktoreak. zenbait denbora-jomugatarako (20, 25, 30, 35
 eta 40 urte) zenbatetsitako xurgapenak (t co₂/oin). iturria: mitecoren kalkulagailua, 2018ko
 urtarrila, 4. bertsioa. 54
9. taula: labore belarkaren eta iraunkorren maneiuari eta intsumoei buruzko orientabideak
 (2010/335/ee erabakia). 58
10. taula: larreen maneiuari eta intsumoei buruzko orientabideak (2010/335/ee erabakia). 58
11. taula. nekazaritza-labore iraunkorretarako, zonakatze klimatikoaren arabera tresnak ematen dituen
 honako hauen balioak: lurzoruaren erabilera-faktorea (f_{lu}), laborantza-maneiuaren faktorea (f_{mg})
 eta intsumo-faktorea (f_i). 58
12. taula. labore iraunkorretarako esyrce inkestan jasotako kudeaketa-praktikak (iturria: esyrce -
 espainiako laborantza azalerei eta errendimenduei buruzko inkesta). 59
13. taula: luraren erabilera-faktorearen (f_{lu}), manei-faktorearen (f_{mg}) eta intsumoen (f_i) hirukoteak,
 labore iraunkorretara egokituak (iturria: esyrce - espainiako laborantza azalerei eta
 errendimenduei buruzko inkesta). 59
14. taula: f_{lu} , f_{mg} eta f_i faktoreak, labore belarkaretarako. faktoreak ipcc 2019aren arabera aurkezten dira
 (5. kapitulua, 5.5 taula) 60
15. taula: f_{lu} , f_{mg} eta f_i faktoreak, labore iraunkorretarako. faktoreak ipcc 2019ren arabera aurkezten dira
 (5. kapitulua, 5.5 taula) 60
16. taula: flu, fmg eta fi faktoreak, larretarako. iturria: (2010/335/EE Erabakia). 61

IRUDIAK

1. irudia: EAEko CO_2 *ex ante* xurgapenen kalkulagailuko (biomasa eta lurzorua) «edukia eta jarraibideak» erlitzaren pantaila-argazkia. 6
2. irudia: kalkulagailuaren gelaxkak nola erabili, kolorearen arabera. 6
3. irudia: ikono horren bidez, kalkulagailua behar bezala betetzeko balio duten oharrak edo azalpenak adierazten dira; era berean, gida honetara sartzeko ikonoa da. 6
4. irudia: *ex ante* xurgapenen kalkulagailuan dauden botoiak. 7
5. irudia: «formularioa garbitu» kodea egikaritu baino lehen agertzen den mezua. 7
6. irudia: EAEko CO_2 *ex ante* xurgapenen kalkulagailuaren (biomasa + lurzorua) «proiektuaren datu orokorrak» erlitzaren pantaila-argazkia. 8
7. irudia: kalkulagailuak adierazitako bideak: baso-proiektuetarako eta gainerako tipologietarako. 9
8. irudia: kalkulua proiektuan egindako basoberritze motaren arabera egiteko metodologiak: a aukera: zur-aprobetxamendurik gabea edo aprobetxamendu ez-intentsibokoa; b aukera: aprobetxamendu intentsibokoa, baso-soilketa. 10
9. irudia: proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapenen zenbatespena. proiektuaren bi aukerak bete direnez, errorea dagoela adierazten du kalkulagailuak. 11
10. irudia: «lurzorua» orriaren pantaila-argazkia. bertan, erabiltzaileak bete behar duen lehen informazio-blokea erakusten da, proiektuaren egungo eta etorkizuneko erabilerari eta maneiuari dagokienez. 12
11. irudia: «lurzorua» orriko pantaila-argazki bat. bertan, erabiltzaileak baso-proiektuetan bete behar duen bigarren informazio-blokea islatzen da (egungo erabileratik eta maneiotik abiatuta). 12
12. irudia: « CO_2 emaitzak» orriaren pantaila-argazkia. bertatik, erabiltzaileak bere proiektuari lotutako xurgapen-emaitzen laburpen xehatua lortuko du. 15
13. irudia: « CO_2 emaitzak» orriaren pantaila-argazkia. bertatik, erabiltzaileak bere proiektuari lotutako xurgapen-emaitzen laburpen xehatua lortuko du. 17
14. irudia: bete beharreko proiektuaren datu orokorrak: proiektuaren sustatzailea eta izena, ifk/ifz, udalerrria (Dulantzi), lurzoru mota, iraunaldia (20 urte), proiektuaren tipologia (egungo erabilera eta maneiotik etorkizuneko erabilera eta maneiorantz), lursailaren edo lursailen katastro-erreferentziak, lursailen azalera (2 ha) eta proiektuarena (2 ha), eta proiektuaren hasiera-urtea (2016). 20
15. irudia: kasuaren pantaila-argazkia: laborearen kudeaketa aldatzea, lurzoruaren erabilera aldatu gabe. sartutako balioekin ($c = \% 0,58$, eta $\text{id} = 1,3 \text{ g/cm}^3$), $22,62 \text{ t c/ha-ko soc}_a$ eta $4,70 \text{ t c/ha-ko cveg}_a$ lortzen dira. 22
16. irudia: « CO_2 emaitzak» orrian, honako hauek ditu erabiltzaileak: iraunaldiaren amaieran zenbatetsitako etorkizuneko xurgapenak, *ex ante* konpentsatzeko etorkizuneko xurgapenak (zenbatetsitakoen $\% 20$) eta berme-poltsari lagatako xurgapenak (eskuragarrien $\% 10$). basokoa ez den proiektu bat denez, hwp (harvested wood products) gelaxka zero da. 23
17. irudia: «erregistroa» orria. bertan, emisioak konpentsatzeko ekimenetan inskriba litezkeen xurgapenak banakatzen dira. tresnak orriarekin .pdf formatuko fitxategi bat sortzeko aukera ematen du. 23
18. irudia: erabiltzaileak proiektuaren tipologia hautatzen du: gaur egungo erabilera eta maneiotik (urteko laboreak) etorkizuneko erabilera eta maneiorantz (labore iraunkorra). 25
19. irudia: tresnaren pantaila-argazkia kasu honetarako: laboretik laborera, kudeaketa eta/edo maneia aldatuz. erabiltzaileak analitikak sartu ditu ($\text{mo} = \% 1,2$, eta $\text{id} = 1,35 \text{ g/cm}^3$). tresnak $28,19 \text{ t c/ha-ko soc}_a$ eta $4,70 \text{ t c/ha-ko cveg}_a$ ematen ditu (hala ere, proiektuko xurgapenen ondorioetarako, $\text{cveg}_a = 0$ onartzen du). 27
20. irudia: « CO_2 emaitzak» erlitzeko pantaila-argazkia. bertan, hauek ditu erabiltzaileak: iraunaldi-amaieran zenbatetsitako etorkizuneko xurgapenak, *ex ante* konpentsatzeko etorkizuneko xurgapen eskuragarriak (zenbatetsitakoen $\% 20$) eta berme-poltsari lagatako xurgapenak (xurgapen eskuragarrien $\% 10$). 28
21. irudia: baso-xurgapeneko proiektua, maneiuaren eta/edo intsumoen ondoriozko hobekuntzekin (proiektuaren datu orokorren orria). 29
22. irudia: aurreikuspenen arabera, proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapenen zenbatespena. a aukera: aprobetxamendu ez-intentsiboa *Quercus ilex* espeziearentzat. 30

23. irudia: «lurzorua» fitxako pantaila-argazkia. erabiltzaileak baso-erabilerari eta -maneuari buruzko datuak bete behar ditu, bai eta etorkizuneko erabilerari eta maneuari buruzkoak ere. 31
24. irudia: basoberritze-adibide baterako pantaila-argazkia, gaur egungo hiru hektarea *pinus radiata*-tik *quercus ilex*-erantz. 32
25. irudia: «Co₂ emaitzak» orriaren pantaila-argazkia. bertan laburbiltzen dira iraunaldi-amaieran zenbatetsitako etorkizuneko xurgapenak, *ex ante* konpentsatzeko etorkizuneko xurgapen erabilgarriak (zenbatetsitako % 20) eta berme-poltsari lagatako xurgapenak (xurgapen erabilgarrien % 10). guztizko erreserben kalkulua (aireko biomasa + lurzorua) v. eranskinaren arabera egiten da. 33
26. irudia: «erregistroa» orria. bertan, emisioak konpentsatzeko ekimenetan inskriba litezkeen xurgapenak banakatzen dira. tresnak orriarekin .pdf formatuko fitxategi bat sortzeko aukera ematen du. 34
27. irudia: eskualde klimatikoak sailkatzeko erueda, besterik ezean (IPCC, 2006). 44
28. irudia: tresnetan txertatutako talde litologikoak: ale ertain eta larriko hondarrak; kareharrizko hareharriak eta kalkarenitak - kareharri dolomitikoak; tuparriak eta lohiharri horixkak; harea nagusi den hareharri eta lutiten txandakatzea; kolubialak - alubialak; lutitak nagusi diren lutita eta hareharrien txandakatzea; arroka bolkanikoak eta igneoak; kareharri eta tuparri grisak txandakatzea - tuparri grisak - ofitak; tuparrien eta kareharrien txandakatzea - arbelak eta graubakak; kareharri bioklastikoak - kareharri urgondarrak - dolomiak. sartzeko loturak: (1) <https://goo.gl/pelhb8>, (2) <https://goo.gl/axyvyy> 48
29. irudia: kalkulagailuan ezarritako kartografia erraz eta azkar erabiltzeko aholkuak. Lursailaren bilaketa errazteko, nabigatzaileak udalerrri-bilatzaile bat du, eta agerian den geruza erakutsi edo ezkutatu daiteke (talde litologikoa). 48
30. irudia: zenbatetsitako xurgapenak 30 urtera (t CO₂/oin). iturria: mitecoren kalkulagailua, 2018. 56
31. irudia: lur landuen eta labore iraunkorren maneuari eta intsumoei buruzko erabaki-zuhaitza. 59

1. SARRERA

Klima-aldaketa errealitate bat da jada; bere ondorioak gero eta agerikoagoak dira, eta mundu osoan zehar daude hedatuta. Muturreko gertaerak ugaritzen ari dira, hala nola bero-boladak, lehorteak, eurite gogorrak, uholdeak eta lur-irristatzeak. Euskadi ez dago errealitate horretatik kanpo. Itxura guztien arabera, mendearen amaierarako igo egingo dira tenperaturak eta prezipitazio-erregimenen aldaketek ondorio larriak izango dituzte ekosistema naturaletan, lehen sektorean, azpiegiturretan, sektore ekonomikoetan –turismoan eta merkataritzan, besteak beste– eta pertsonen osasunean. Dagoeneko ikusten ari gara hainbat ondorio, hala nola itsasoaren maila eta tenperatura igotzen ari direla, eta bero-boladak eta lehorte-aldiak areagotzen.

Klima-aldaketa geldiarazteko eta haren ondorioak saihesteko, beharrezkoa da arintze- eta egokitze-prozesuan aurrera egitea berotze globala 1,5 °C-ra mugatzeko helburu argiarekin –Pariseko Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen 2015eko Konferentziaren esparruan ezarri zen bezala¹–, eta 2050erako, beranduenez, karbono-neutraltasuna lortzea. Horregatik, Europar Batasunaren urratsei jarraituz, Eusko Jaurlaritzak Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena onartu zuen 2019an². Europar Batasunaren larrialdi klimatikoaren adierazpenean oinarritzen den adierazpen horren eta Europako Itun Berdeak ezarritako helburuen bidez³, EAEk klima-aldaketaren erronkaren buru izan nahi du, eta ekonomia lehiakorrago eta klimatikoki neutroago baterantz eraldatzeko aukera bihurtu.

Karbono-neutraltasuna (edo zero karbono-aztarna) lortzen da atmosferara igorritako karbono dioxido (CO₂) kopuruaren eta hainbat modutara erretiratutakoaren arteko balantzea nulua denean. Oreka hori lortzeko modurik osasungarriena hustutegi naturalak baliatzea da (basoak, landareak, lurzorua, hezegunak edo ozeanoak), horien bidez karbono dioxidoa xurgatzeko.

Karbono-hustutegia zer da? Bada, igortzen duen karbono kopurua baino gehiago xurgatzen duen edozein sistema. Lurzoruko mikroorganismoek eta landareek xurgatutako karbono dioxido kopurua aldi berean gertatzen diren emisioak baino handiagoa bada, landare-ekosistema hori hustutegia izango da; alderantzizko kasuan, berriz, emisio-iturria. Dena den, ziklo biologikoaren karbono-fluxu hori ez da eteten, eta, beraz, hustutegiei dagokienez funtsezkoa da zenbat denbora ematen duen karbonoak haietan pilatuta. Adibidez, baso batek xurgatutako karbono dioxido kopuruak atmosferara itzuliko dira, baldin eta baso hori, edozein arrazoi dela bide (izurriak, gaixotasunak, zur-erazketa, haizeteak, suteak eta abar), desagertu egiten bada.

EAEko karbono dioxidoaren hustutegi nagusiak landare-biomasa eta lurzorua dira. 2018an, 1,9 milioi tona CO₂ baliokide finkatu ziren, batez ere baso-lurrei esker, baina baita larre, labore eta hezeguneei esker ere, besteak beste (Ihobe, 2020). Nolanahi ere, egindako zenbatespenen arabera (NEIKER-Tecnalia, 2014), baso-biomasan % 52 karbono gehiago finka liteke, baso-lurrak modu egokian antolatuz eta kudeatuz gero. Gainera, nabarmendu behar da lurzoruko materia organikoak karbono-izakin egonkorragoak dituela, baso-biomasa gisa finkatutako karbonoak baino denbora gehiagoan irauten baitu. Zenbatespenen arabera, EAEko azaleraren % 30eko lurzoruek 670.000 tona karbono dioxido baliokide inguru finkatu ahal izango lituzkete hektarea eta urte bakoitzeko baso-lurretan, abeltzaintza-lurretan eta nekazaritza-lurretan, baldin eta zenbait neurri aplikatuko balira, hala nola basoberritzea, landaketen eta nekazaritza-ustiatzearen kudeaketa jasangarria, larreen hobekuntza, eta abar (Ihobe, 2019).

Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, funtsezkoa da biltegitratutako karbonoa areagotzen laguntzen duten horrelako praktikak eta proiektuak sustatzea. Lurraren erabilerarekin, lurraren erabilera-aldaketarekin eta basogintzarekin lotutako jardueri –hain zuzen karbonoaren xurgapenak eta karbonoak lurzoruan eta biomasan irautea sustatzen dutenei– xurgapen-proiektu deitzen zaie.

«Euskal Autonomia Erkidegoko CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailua»-ren helburua kudeaketa-tresna bat eskaintzea da, honako hauei lotutako karbono dioxidoaren xurgapenak modu errazean zenbatesten laguntzeko:

¹ https://ec.europa.eu/clima/policies/international/negotiations/paris_es

² https://bideoak2.euskadi.eus/2019/07/30/news_56172/Declaracion_Emergencia_Clim_tica.pdf

³ https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es

- EAeko biomasa eta
- lurzorua,

hainbat erabileratakoak (basogintza, belarki-laboreak, labore iraunkorrak eta larreak), karbono-baliabideak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko (karbono-hustutegiak, batez ere).

Gainera, ezaugarri egokiak dituzten xurgapen-proiektuen garapena sustatu nahi da, emisioak konpentsatzeko ekimenetan kontuan har daitezten. Horretarako diseinatu da aipatutako tresna, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren «Karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroa»-ren betekizunak eta espezifikazioak kontuan hartuta. Erregistro hori 163/2014 Errege Dekretuak arautzen du ⁴ ; Estatuan dauden basoberritze-proiektuak inskribatzea ahalbidetzen du, eta enpresei eta erakundeei beren karbono-aztarna konpentsatzeko aukera eskaintzen die.

⁴ https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-3379

2. TRESNA

«Euskal Autonomia Erkidegoko CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailua» (hemendik aurrera, kalkulagailua) kalkulu-orri erabilerraz bat da, EAEn garatzen diren xurgapen-proiektuei lotutako karbono dioxidoaren (CO₂) xurgapenak kalkulatzeko aukera ematen duena. Tresnak biomasari eta lurzoruari lotutako karbono dioxidoaren xurgapenak kalkulatzeko aukera ematen du, erabilera desberdinekin lotuta (basogintza, belarki-laboreak, labore iraunkorrak eta larreak).

Basoetako **biomasaren** xurgapenak kalkulatzeko, honako hauek erabiltzen ditu kalkulagailuak: Espainiako zuhaitz-espezieei dagozkien xurgapen-faktoreak eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailuan jasotako eragiketak. Kalkulu-metodologiaren oinarria [Trantsizio Ekologikorako Ministerioak \(MITECO\) diseinatutako tresna](#) da. Baso-proiektuen kasuan, gainera, EAEko *ex ante* xurgapenen kalkulagailuak kontuan hartzen du zuraren erabilera ere; horrela, kontabilizatu egiten dira bizitza baliagarri luzeko produktuak (30 urtetik gorakoak) ekoizteko erauzitako zura erabiltzeak eragindako xurgapenak.

Bestalde, tresnak kontuan hartzen du laborantza-lurretako (belarkiak eta zurkarak) eta larreetako (belardiak, belar-soroak, bazkalekuak eta antzekoak) gaur egungo eta etorkizuneko biomasako karbonoa ere. Horretarako, IPCC berotegi-efektuko gasen inbentario nazionalerako emandako datuetan oinarritzen da.

Lurzoruari dagozkion xurgapenak proiektuari hasiera eman aurretik dagoen materia organikoan eta lurzorua itxurazko dentsitatean oinarrituz kalkulatu dira. Hortaz, lurzoruan *ad hoc* egindako analitiken datuak behar dira; bestela, berriz, «Euskadiko karbonoaren izakinen mapa eta lurzoruen ehundura mapa» hartu behar da erreferentzia gisa (Ihobe, 2019). Hasierako unean dagoen karbono kopurua kalkulatu ondoren, lurzorua erabilera, maneia eta intsumoak hartzen dira kontuan, bai proiektuari hasiera ematen zaion unekoak, bai etorkizunerako aurreikusitakoak. Horrela, kalkulagailuak eranskinetan adierazitako ekuazioak eta faktoreak aplikatzen ditu, proiektuaren hasierako eta amaierako karbono-erreserbak kalkulatzeko.

Azken emaitza gisa, proiektuaren bukaeran guztira sortuko diren xurgapenen datua ematen du kalkulagailuak, hala lurzoruak nola aireko biomasak xurgatutakoa kontuan hartuta.

3. NORI ZUZENDUTA DAGO KALKULAGAILUA?

Bere xurgapen-proiektuak etorkizunean sortuko dituen xurgapenak zenbatetsi nahi dituen edozein pertsona fisiko edo juridikori zuzenduta dago Euskal Autonomia Erkidegoko CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailua.

Tresna honen bidez, bi helburu lortu nahi dira: alde batetik, xurgapen-proiektuak egitera bultzatzea, eta, bestetik, konpentsazio-ekimenetan parte hartzeko erraztasunak ematea. Hori dela eta, proiektuaren amaierarako zenbatetsitako etorkizuneko xurgapenak kalkulatzeari gain, kalkulagailuak *ex ante* eskuragai egon litezkeen xurgapenak ere zenbatesten ditu (xurgapen guztien % 20), konpentsaziorako erabiltzeko – harik eta *in situ* egindako neurketen bidez (lurzoruan eta/edo biomasan xurgatutako karbonoaren jarraipena) justifikatu ahal izan arte–, bai eta berme-poltsara bideratutako xurgapenak ere (eskuragai dauden xurgapenen % 10). Berme-poltsako xurgapenen helburua proiektuko xurgapenak murriztu ditzaketen gertakariak estaltzea da (adibidez, izurri baten eraginez edo suteen, denboraleen eta abarren eraginez).

Oraingoz, baso-biomasako karbono dioxidoaren xurgapenak bakarrik har dezakete parte MITECOren xurgapen-proiektuetan, eta horiek bakarrik inskriba daitezke [Karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroan \(MITERD, s.f.\)](#), betiere 163/2014 Errege Dekretuan⁵ ezarritako baldintzak betetzen badituzte, bai eta erregistratzeko dokumentazioan ageri diren baldintzak ere. Gainera, azpimarratu behar da kalkulagailuan sartutako informazio guztia justifikatzeko modukoa izan behar dela.

⁵ https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-3379

4. KALKULAGAILUA ERABILTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Esan bezala, kalkulagailua erabili ahal izateko, komeni da jakitea proiektuari hasiera eman baino lehen (lurzoruari erabilera berria eman baino lehen edota kudeaketa aldatu baino lehen) lursailean **zenbat karbono organiko dagoen** (hektarea bakoitzeko karbono tonak) eta **lurzoruairen itxurazko dentsitatea** zein den.

Bi alderdi horiek zehaztasunez jakiteko, **lurzoruen laginketa eta analisisia** egin beharko du horretarako gaituta dagoen hirugarren batek. Horretarako gaituta dagoen hirugarrena izango da proiektuaren sustatzailea ez den erakunde bat, lurzoruen laginketak eta analisisiak egiten eskarmentua duela egiazta dezakeena.

Proiektuaren xede den lursaileko lurzoruairen laginketarik ez badago eskuragarri, tresnak aukera ematen du **lurzoruko karbono-izakinen zenbatespena** kontsultatzeko (SOC_A), honako argitalpen honetatik erazuten den kartografian lurzoruak duen gaur egungo erabilerearen arabera: [Euskal Autonomia Erkidegoko karbono-hustutegiak: bahitzeko ahalmena eta horiek sustatzeko neurriak](#).

Hala eta guztiz ere, proiektua xurgapen-proiektuen erregistroren batean inskribatu nahi izanez gero, lurzoruko karbono kopuruari buruzko datu errealak beharko dira, eta datu horiek gaituta dagoen hirugarren batek egindako analitiken bidez eskuratu beharko dira.

Bestalde, karbonoa xurgatzeko proiektu guztiek denbora-tarte zehatz batean **irauteko konpromisoa** hartu behar dute. Sustatzaileak zehaztuko du denbora-tarte hori. Denbora-tarte horretan zehar, eutsi egin beharko zaie hasieran aurreikusitako baldintzei eta maneiuei, eta horien arabera izango dira xurgapen-kalkuluen emaitzak. Proiektuak irauten duen aldi zehar aldaketak egiten badira proiektuaren irismenean edo kudeaketan, kalkulagailuaren emaitzak ez dira baliozkoak izango.

5. KALKULAGAILUA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK, PAUSOZ PAUSO


Euskal Autonomia Erkidegoko CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailua kalkulu-orri bat da, zazpi erlaintz edo orri dituen (1). Erabiltzaileak proiektuaren datuak sartu beharko ditu, tresnak karbono dioxidoaren xurgapenak kalkulatu ahal izan ditzan.

1. [Edukia eta jarraibideak](#)
2. [Proiektuaren datu orokorrak](#)
3. [Etorkizuneko aireko baso-biomasa](#)
4. [Xurgapenen kalkulua - Lurzorua](#)
5. [Karbono dioxidoaren emaitzak – Etorkizuneko xurgapen eskuragarriak *ex ante* konpentsaziorako](#)
6. [Emisio-kompentsazioko ekimenetan inskriba daitezkeen xurgapenen laburpena](#)
7. [Eranskina: xurgapen-faktoreak baso-espeziearen arabera](#)

Kalkulagailua erabiltzeko orduan, eta karbonoa konpentsatzeko proiektuak erregistroetan inskribatzeari begira, bi proiektu mota bereizten dira:

- **Baso-proiektuak:** baso-erabilera emateko aldaketa bat jasotzen duten proiektuak (baso-sartzeak edo basoberritzeak) eta baso-jarduera kudeatzeko moduan aldaketak jasotzen dituzten proiektuak. Kasu horretan, erlaintz guztiak bete beharko dira. Proiektua erregistratzeko aukerei dagokienez, soil-soilik inskribatu ahal izango dira (karbonoa xurgatzeko proiektuen MITECOren erregistroan) baso-sartzeko eta basoberritzeko proiektuetan eskuragarri dauden aireko baso-masaren xurgapenak. Gaur egun ez dago baso-lurzoruairen xurgapenak inskribatzeko aukera ematen duen erregistrorik. Hala ere, «Laburpena eta erregistroa» erlaintzean inskribatzeko eskuragarri egon litezkeen xurgapenak adierazten dira, informazio gisa.

- **Bestelako proiektuak:** nekazaritza- edo larre-erabilera aldatzea aurreikusten duten proiektuak. Kasu horretan, erlaitz guztiak bete beharko dira, «Etorkizuneko baso-biomasa» izenokoa izan ezik. Proiektua erregistratzeko aukerei dagokienez, gaur egun ez dago inolako erregistrorik aukera ematen duenik nekazaritzako laboreen edo larreen aireko biomasaren nahiz lurzoruen xurgapenak inskribatzeko. Hala ere, «Laburpena eta erregistroa» erlaitzean, inskribatzeko eskuragarri egon litezkeen xurgapenak adierazten dira, informazio gisa.



Jarraian, kalkulagailua erabiltzeko jarraibideak zehazten dira: orri bakoitzaren edukia aurkezten da, eta eskatutako informazioa nola bete behar den azaltzen da, urratsez urrats.

5.1. EDUKIA ETA JARRAIBIDEAK

EAE-KO CO₂ EX ANTE XURGAPENEN KALKULAGAILUA (BIOMASA ETA LURZORUA)
1. EDUKIA ETA JARRAIBIDEAK

EDUKIA

1.	Edukiak eta jarraibideak
2.	Proiektuaren datu orokorrak
3.	Xurgapenen kalkulua - Etorkizuneko aireko baso-biomasa
4.	Xurgapenen kalkulua - Lurzorua
5.	CO ₂ emaitzak - Ex ante konpentsatzeko etorkizuneko xurgapen eskuragarriak
6.	Emisio-kompentsazioa ekimenteran inkurritu daitezkeen xurgapenen laburpena
7.	ERANSKINA - Xurgapen-faktoreak baso-espeziazaren arabera
8.	Kartografia lagungarria

BETETZEKO JARRAIBIDEAK: KALKULAGAILUAREN ERABILERA

- 1- Orri bakoitza bete aurretik, erabili «Formularioa garbitu» botoia
- 2- Bete «Proiektuaren datu orokorrak» orria
- 3- Baso-sartzeko edo basoberritzeko proiektuetarako, bete orot «Etorkizuneko baso-biomasa» orria
- 4- Proiektuaren tipologia gorabehera, bete «Lurzorua» orria
- 5- Emaitzak automatikoki eskuratu dira, eta «CO₂ emaitzak» orriaren egingo dira ikusgai
- 6- «Erregistro» orriaren bidez, kontsulta duteke proiektuak zer eskimenekin egin dezakeen bat

Adierazitako unitateetan erabiltzaileak eman beharreko datua
Erabiltzaileak eman beharreko datua, zerrenda zabalgarrian erakutsitako aukeren artetik
Tresnak proposatutako/kalkulatutako datua

Tresna egokiro betetzeko ohar edo azalpen lagungarriak

Ekutatu/erakutsi aurkibidea | Ekutitzen edo erakusten du tresnaren aurkibidea | Pantaila osoa | Aktibatzen du pantaila osoaren modua | Excel modua | Desaktibatzen du pantaila osoaren modua | Formularioa garbitu | Orri bakoitzaren gelaak garbitzen ditu | Erabilera-gida

«Espainiako baso-espeziaz zabalgarriaren CO₂ ex ante xurgapenen kalkulagailua»

1. irudia: EAEko CO₂ ex ante xurgapenen kalkulagailuko (biomasa eta lurzorua) «Edukia eta jarraibideak» erlaintzen pantaila-argazkia.

Erlaitz bakoitzerako sarbidea errazteko, aurkibide bat dago pantailaren ezkerrean. Erabiltzaileak, besterik gabe, behar duen erlaintzean klik egin behar du (1). Bestalde, datuak betetzeko lana erraztearren, honako kolore-kode hau dago (

2):

Adierazitako unitateetan erabiltzaileak eman beharreko datua
Erabiltzaileak eman beharreko datua, zerrenda zabalgarrian erakutsitako aukeren artetik
Tresnak proposatutako/kalkulatutako datua

2. irudia: Kalkulagailuaren gelaxkak nola erabili, kolorearen arabera.

Gainera, komenigarria den kasuetan, azalpen osagarria ematen da eremu jakin batzuk behar bezala betetzeko (3 ikonoaren bidez egiten da, ezkerrean). Erabiltzaileak, era berean, **Erabilera-gida** honetarako sarbidea du (eskuineko ikonoa) (3 eskuineko ikonoa).

Tresna egokiro betetzeko ohar edo azalpen lagungarriak




3. irudia: Ikono horren bidez, kalkulagailua behar bezala betetzeko balio duten oharak edo azalpenak adierazten dira; era berean, gida honetara sartzeko ikonoa da.


Kalkulagailuaren orri bakoitzean botoi batzuk daude, kalkulagailua errazteko erabiltzeko (4):

- **Aurkibidea ezkutatu/erakutsi:** aurkibidea ezkutatzeko edota bistartzeko.
- **Pantaila osoa:** kalkulagailuaren leihoa pantaila osoan bistartzeko. Pantaila osotik ateratzeko, nahikoa da «Escape» sakatzea.

- **Excel modua:** Excel modua aktibatzen (orrien goiburuekin).
- **Formularioa garbitu:** orri bakoitzean bete behar diren gelaxka guztiak garbitzeko edo berrabiarazteko, lehenagoko probekin betetako gelaxkarik gera ez dadin. Beraz, betetzen hasi baino lehen, orri bakoitza garbitzea komeni da. Hala ere, «Formularioa garbitu» botoia sakatzean formularioa hasierako puntuan berrezartzen denez, eta jada beteta dagoen informazioa ustekabeaz ez ezabatzen, erabiltzaileak berretsi egin beharko du formularioa hutsetik berrezarri nahi duela.



4. irudia: *Ex ante* xurgapenen kalkulagailuan dauden botoiak.



5. irudia: «Formularioa garbitu» kodea egikaritu baino lehen agertzen den mezua.

5.2. PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK



Erlaitz hau kasu guztietan bete behar da.

Orri honek proiektuaren datu orokorrak jasotzen ditu (6). Formularioa errazago bete ahal izateko, botoiak ordena honetan erabiltzea komeni da: **1- Aurkibidea ezkutatu; 2- Formularioa garbitu; 3- Pantaila osoa; 4- Excel modua.**

6. irudia: EAEko CO₂ ex ante xurgapenen kalkulagailuaren (biomasa + lurzoria) «Proiektuaren datu orokorrak» erlaitzaren pantaila-argazkia.

Zehazki, honako datu hauek eskatzen dira (grisez ilunduta dauden gelaxkak kalkulagailuak berak automatikoki betetzen ditu):

- **Proiektuaren sustatzailea:** pertsona fisiko edo juridikoaren izena.
- Proiektuaren sustatzaile den pertsonaren **IFK/IFZ**.
- **Proiektuaren izena:** proiektua identifikatzeko izena.
- **Udalerrria:** proiektuaren kokalekua (zerrenda zabalgarria).
- **Probintzia** (kalkulagailuak berak betetzen du eremua).
- **Eskualde klimatikoa** (kalkulagailuak berak betetzen du eremua) (ikus **II. ERANSKINA**).
- **Lurzoru mota**⁶: EAEko lurzoru mota nagusiak jasotzen dituen zerrenda zabalgarria. Lurzoru moten artean bat hautatzeko, esteka bat dago, mapa batera eramaten duena⁷, bertan bilatu eta ikusteko zehazki zer lurzoru motatan dagoen lursaila. Kontsultatu **III. ERANSKINA**.

⁶ Tresnan txertatutako talde litologikoak: Ale ertain eta larriko hondarrak; Kareharrizko hareharriak eta kalkarenitak - Kareharri dolomitikoak; Tuparriak eta lohiharri horixkak; Harea nagusi den hareharri eta lutiten txandakatzea; Kolubialak - Alubialak; Lutitak nagusi diren lutita eta hareharrien txandakatzea; Arroka bolkanikoak eta igneoak; Kareharri eta tuparri grisak txandakatzea - Tuparri grisak - Ofitak; Tuparrien eta kareharrien txandakatzea - Arbelak eta graubakak; kareharri bioklastikoak - Kareharri urgondarrak - Dolomiak.

⁷ Bi modu daude EAEko mapa litologikoa edozein sistema eragiletatik zuzenean kontsultatu ahal izateko: (1) <https://goo.gl/pELH88>, (2) <https://goo.gl/AXvvyY>

- **Iraunaldia:** pertsona kudeatzaileak proiektua kudeatzeko eta horren jarraitutasuna bermatzeko konpromisoa hartzen duen denbora-tartea (urteetan). 30 urte edo gehiagokoa izan beharko du baso-sartzeko, basoberritzeko eta baso-kudeaketako proiektuetan, eta 10 urte edo gehiagokoa gainerako kasuetan. Gainera, baso-biomasaren kasuan iraunaldia 50 urtetik gorakoa denean, hain epe luzeek dakarten ziurgabetasuna dela eta, *ex ante* kalkuluak 50 urterako jomuga kontuan hartuta egiten dira. Horrela, *ex ante* kalkulaturako xurgapenen lagapenek muga bat izango dute: 50 urtean gehienez lortzen diren xurgapenak.
- **Proiektuaren tipologia:** zerrenda zabalgarrien bidez, egungo eta etorkizuneko erabilera eta maneia hautatu behar dira. Tresnak honako erabilera hauen artean hautatzeko aukera ematen du (**kontsultatu 1. koadroa** aztergai den luraren erabilera-kategorien deskribapenaren arabera):

A. Urteko belarki-laborea	B. Labore iraunkorra	C. Belardiak eta larreak
D. Baso-lurra		E. Sastraka
- **Proiektuaren hasiera-urtea:** proiektua hasten den urtea. Jarduketak urte desberdinetan egingo badira, urte bakoitza proiektu independente gisa hartu behar da, eta, beraz, kalkulagailua proiektu bakoitzari modu independentean aplikatu beharko zaio.


Proiektua osatzen duten **lursailetak**o bakoitzerako informazio hau bete behar da:

- Proiektua kokatuta dagoen lursailaren edo lursailen **katastroko edo SIGPACeko erreferentzia**. Proiektuak hainbat lursail hartzen baditu, horien guztien erreferentziak jaso behar dira.
- Proiektua garatzen den **lursail bakoitzaren azalera**, hektareatan adierazita (ha).
- **Proiektuaren azalera:** proiektuak biltzen dituen lursailen azalera guztien batura da. Lursailen azalaren baturak proiektuaren azalera osoa gainditzen badu, gelaxka gorri bihurtuko da (errorea adieraziz).

Azkenik, proiektu motaren arabera (kontsultatu **I** proiektuaren tipologiak), bete beharreko orriak adierazten dira (ikus

7):

- **Etorkizunean baso-erabilera izango duten proiektuetarako**, «Etorkizuneko baso-biomasa» erlaitza bete behar da aireko biomasako xurgapenak kalkulatzeko. Ondoren, «Lurzorua» erlaitza bete beharko da, lurzoruko xurgapenak kalkulatzeko.
- **Etorkizuneko proiektuen gainerako tipologietarako**, soilik «Lurzorua» erlaitza bete beharko da.


 1) Baso-proiektuetarako, bete orri hauek: «Etorkizuneko baso-biomasa» eta «Lurzorua»
 2) Gainerako tipologietarako, «Lurzorua» orria bakarrik bete behar da.

7. irudia: Kalkulagailuak adierazitako bideak: baso-proiektuetarako eta gainerako tipologietarako.

Oharra: Aurrerapen-barra: kalkulagailuak, datuak betetzeko prozesuan laguntzeko, aurrerapenaren ehunekoa eskaintzen du. Erabilizailea gelaxkak betetzen joan ahala, handitzen doa ehunekoa. % 100era iritsi arte, ez da hurrengo erlaitzera pasatu behar.

5.3. ETORKIZUNeko BASO-BIOMASA

1. Edukia eta jarraibideak	2. Proiektuaren datu orokorrak	3. Etorkizuneko baso-biomasa	4. Xurgapenak-lurzoria	5. CO ₂ emaitzak	6. Erregistroa-MITECO-Ihobe	7. Eranskina-Xurgapen-faktoreak	8. Kartografia lagungarria
----------------------------	--------------------------------	------------------------------	------------------------	-----------------------------	-----------------------------	---------------------------------	----------------------------

Erlaitz hau **baso-proiektuen kasuan baino ez da bete behar** (gainerako proiektu-tipologiaren kasuan, «Lurzoria» erlaitza bakarrik bete beharko da).

Etorkizuneko baso-biomasaren xurgapenak kalkulatzeko metodologia MITERDen Espainiako baso-espezieen karbono dioxidoaren *ex ante* xurgapenen kalkulagailuan⁸ oinarritzen da.

Formularioa errazago bete ahal izateko, botoiak ordena honetan erabiltzea komeni da: **1- Aurkibidea ezkatatu; 2- Formularioa garbitu; 3- Pantaila osoa; 4- Excel modua.**

Bi aukeretatik bat hautatu beharko da, egindako kudeaketa motaren arabera (

Bi kalkulu-metodologia bereizten dira, eginiko basoberritze motaren arabera:	
1. Basoberritzearen xedea ekoizpena ez denean edota aurreikusitako ebaketa-txanda iraunaldia baino luzeagoa denean, A AUKERA hautatu beharko da: Zur-aprobetxamendurik gabeko basoberritzeak edo aprobetxamendu ez-intentsibokoak	A aukera berretsi
2. Aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeen kasuan, baldin eta ebaketa-txanda iraunaldia baino laburragoa bada, B AUKERA hautatu beharko da: Aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeak, baso-soilketak	B aukera berretsi
<small>OHARRA: botoiak aukera ematen du A eta B aukerak multzoan sartzeko eta multzotik ateratzeko</small>	

8. irudia):

- Basoberritzearen xedea ekoizpena ez denean edota aurreikusitako ebaketa-txanda iraunaldia baino luzeagoa denean, **A AUKERA** hautatu beharko da: **Zur-aprobetxamendurik gabeko basoberritzeak edo aprobetxamendu ez-intentsibokoak**. (Oharra: «A aukera berretsi» botoiak aukera ematen du A aukera multzoan sartzeko eta multzotik ateratzeko).
- Aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeen kasuan, baldin eta ebaketa-txanda iraunaldia baino laburragoa bada, **B AUKERA** hautatu beharko da: **Aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeak, baso-soilketak**. (Oharra: «B aukera berretsi» botoiak aukera ematen du B aukera multzoan sartzeko eta multzotik ateratzeko).

Bi kalkulu-metodologia bereizten dira, eginiko basoberritze motaren arabera:	
1. Basoberritzearen xedea ekoizpena ez denean edota aurreikusitako ebaketa-txanda iraunaldia baino luzeagoa denean, A AUKERA hautatu beharko da: Zur-aprobetxamendurik gabeko basoberritzeak edo aprobetxamendu ez-intentsibokoak	A aukera berretsi
2. Aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeen kasuan, baldin eta ebaketa-txanda iraunaldia baino laburragoa bada, B AUKERA hautatu beharko da: Aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeak, baso-soilketak	B aukera berretsi
<small>OHARRA: botoiak aukera ematen du A eta B aukerak multzoan sartzeko eta multzotik ateratzeko</small>	

8. irudia: Kalkulua proiektuan egindako basoberritze motaren arabera egiteko metodologiak: A AUKERA: zur-aprobetxamendurik gabea edo aprobetxamendu ez-intentsibokoak; B AUKERA: aprobetxamendu intentsibokoak, baso-soilketak.

Jarraian, betetze-mailaren araberako desberdintasunak zehazten dira, hautatutako basoberritze motaren arabera (A edo B aukera).

- **A aukera:** zabalgarri baten bidez (auto-osatzeko funtzioa duena), landatu beharreko espeziea aukeratu eta xede-oinen kopurua sartzan da. «**Proiektuaren datu orokorrak**» orrian aldeztatik sartutako datuetatik abiatuta, proiektuaren iraunaldia, azalera eta landaketa-urtea hartzen ditu tresnak. Datu horiekin guztiekin eta espezie bakoitzeko karbono dioxido xurgapen unitarioekin, kalkulagailuak xurgapenak kalkulatu ditu, denera (t CO₂) eta hektareako (t CO₂/ha).

⁸ CO₂ xurgatzeko proiektuak – eskura dagan tresna:

<https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/mitigacion-politicas-y-medidas/calculadoras.aspx>

- **B aukera:** zabalgarri baten bidez (auto-osatzeko funtzioa duena), erabiltzaileak landatu beharreko espeziea aukeratzen du eta ebaketa-txanda (urteak), landatze-azalera eta xede-oinen kopurua sartzen ditu. «**Proiektuaren datu orokorrak**» orrian alde aurretik sartutako datuetatik abiatuta, proiektuaren iraunaldia, azalera eta landaketa-urtea hartzen ditu tresnak. Datu horiekin guztiekin eta espezie bakoitzeko karbono dioxido xurgapen unitarioekin, kalkulagailuak xurgapenak kalkulatu ditu, denera (t CO₂) eta hektareako (t CO₂/ha). (**Oharra:** landaketa-azalera guztien baturak ezin du gainditu proiektuko landaketa-azalera osoa; gaindituz gero, tresnak errorea adieraziko du, azalera partzialak adierazten dituen gelaxka kolore gorrian azalduz).

Azkenik, emandako datuetatik abiatuta, kalkulagailuak «*proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapen zenbatetsiak*» erakusten ditu.

Garrantzitsua: aukera bakarra hautatu behar da. Dena den, nahi gabe bi aukerak betez gero, kalkulagailuak hondo gorriko kolore batez ohartaraziko du «Proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapen zenbatetsiak» erakusten dituen gelaxkan.

Aurreikuspenen arabera, proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapen zenbatespena

144,27 t CO ₂

9. irudia: Proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapen zenbatespena. Proiektuaren bi aukerak bete direnez, errorea dagoela adierazten du kalkulagailuak.

5.4. LURZORUA

- 1. Edukia eta jarraibideak
- 2. Proiektuaren datu orokorrak
- 3. Etorkizuneko baso-biomasa
- 4. Xurgapenak-lurzoria
- 5. CO2 emaitzak
- 6. Erregistroa-MITECO-Ihobe
- 7. Eranskina-Xurgapen-faktoreak
- 8. Kartografia lagungarria

Erlaitz hau kasu guztietan bete beharko da.

Botoiak ordena honetan erabiltzea komeni da: **1- Aurkibidea ezkutatu; 2- Formularioa garbitu; 3- Pantaila osoa; 4- Excel modua.**

1. BLOKEA (10. irudia): «Egungo erabilera eta maneiotik» eta «Etorkizuneko erabilera eta maneiorantz».

Bi ataletarako, kalkulagailuak aurreko orrietako datuak hartzen ditu (hondo griseko formatuan azaltzen dira), hala nola lurzoruaren erabilera, eskualde klimatikoa eta lurzoru mota.

Bete beharreko datuak hauek dira (gelaxka horiak):

- **Lurzoruaren maneioa** (auto-osaketa duen zabalgarria)
- **Intsumoak** (auto-osaketa duen zabalgarria)

Egungo eta etorkizuneko lurzoruaren maneioa eta intsumoen hautapena, errazteko, **XI. eranskineko 31. irudian** oso ulergarria den erabaki-zuhaitz bat ageri da.

Egungo erabilera eta maneiotik		Etorkizuneko erabilera eta maneiorantz	
Lurzoruaren erabilera	Baso_Lurra	Belardiak larreak	Belardiak larreak
Baso-espezie nagusia/laborea	Pinus pinaster ssp. atlantica Iparraldeko Barrualdea Pinus pinaster ssp. atlantica Iparraldeko Barrualdea	Belardiak larreak	Belardiak larreak
Eskualde klimatikoa	Klima epel-beroa, hezea	Klima epel-beroa, hezea	Klima epel-beroa, hezea
Lurzoru mota	5-Hareharri kareduna eta kalakarenita. Kareharri dolomitikoak	5-Hareharri kareduna eta kalakarenita. Kareharri dolomitikoak	5-Hareharri kareduna eta kalakarenita. Kareharri dolomitikoak
Lurzoruaren maneioa	Kable_bidez_eskuz Kable_bidez_eskuz	Hobetua	Hobetua
Intsumoak	Ez-aplikagarria	Intsumo asko	Intsumo asko

10. irudia: «Lurzoria» orriaren pantaila-argazkia. Bertan, erabiltzaileak bete behar duen lehen informazio-blokea erakusten da, proiektuaren egungo eta etorkizuneko erabilerari eta maneioari dagokienez.

2. BLOKEA (11. irudia): Baso-aireko biomasa, proiektua hasi aurretik. «Baso-proiektuetarako» bakarrik, honako datu hauek sartu behar dira (hondo griseko gelaxken gainerako datuak automatikoki kalkulatu dira, hautatutako baso-espezietik abiatuta):

- **Egungo basoaren ekoizpen osoa (m³/ha).** Aterako den biomasa-bolumena (m³/ha) adierazi behar da. Erabiltzaileak proiektua hasi aurretik emandako enbor-biomasa aire-biomasa (t C/ha) bihurtzen da ekuazio baten bidez. Ekuazio hori **VIII** adierazten da (**7. ekuazioa**), baita enbor-bolumena aire-biomasaaren karbono-xurgapen bihurtzeko erabilitako datuak ere (**6**), eta kalkulagailuaren esparruan egindako espezie-taldekatzea (**6**).
- **30 urtetik gorako bizitza baliagarria duten zurezko produktuak (m³/ha).** Gaur egun dagoen aireko biomasatik adierazi beharko da zenbat erabiltzen den bizitza luze zurezko produktuak fabrikatzeko (bizitza > 30 urte), eta soilik produktu horiek kontabilizatuko dira karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuaren ondorioetarako, proiektuaren bidez lortutako xurgapenen zati gisa. Egungo aireko biomasan finkatutako gainerako karbonoa (C_{VEGA}) ez da kontabilizatuko, nahiz eta erabiltzaileak kalkulatu eta bistaratu duen (**ikus V. eranskina**).

AIREKO BASO-BIOMASA, PROIEKTUA HASI AURRETIK			
Produktzioa GUZTIRA (m ³ /ha)		300,00 m ³ /ha	
30 urtetik gorako bizitza baliagarria duten zurezko produktuak		100,00 m ³ /ha	
Zuraren dentsitatea		0,38 t MS/m ³	
Hedatze-faktorea		1,20 t aerea/t fuste	
Karbonoa zurean		0,51 t C/t MS	
Karbonoa DOMean		0,51 t C/t MS	
A aukera hautatu ondoren, etorkizuneko baso-espezia (**22**) sartu beharko da, eskuragarri dauden baso-espezie guztiak agertzen diren zerrenda zabalgarritik. Espezia hautatzean (*Quercus ilex*), kalkulagailuak zuzenean erakusten du iraunaldia (50 urte), landatze-azalera (3 ha) eta landatze-urtea (ordura arte ezkutuan), «**Datu orokorrak**» orritik hartuta. Xede-oinen kopurua¹⁴ adierazi beharko da (1.200); kalkulagailuak aireko biomasako xurgapenak zenbatetsiko ditu –ezarritako iraunaldian proiektuak sortuko dituenak– bai guztira, bai azalera-unitateko.

Aurreikuspenen arabera, proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapenen zenbatespena **144,27 t CO₂**

A aukera: zur-aprobetxamendurik gabeko basoberritzeak edo aprobetxamendu ez-intentsibokoak.

Proiektuaren iraunaldia **50 urte**

A AUKERAKO landatze-azalera **3,00 ha**

Especia	Landaketa-urtea ¹	Oin-kopurua (xedeak) ²	Xurgapenak	
			Unitarioak azalerako (t CO ₂)	Guztira (t CO ₂)
<i>Quercus ilex</i>	2016	1.200	0,120	144,27
	2016			
	2016			

Hemen adierazitako xurgapenak bat datoz landaketa egiten den urtetik iraunkortasun-aldia amaitzen den arte lortzea espero den zenbatespenarekin.

Xurgapenak, A AUKERA	144,27	t CO₂
	48,09	t CO₂/ha

1 Espezia bakoitza zer urtetan landatuko den

2 Proiektuaren iraunaldia bukatzean espezia bakoitzerako aurreikusten den xede-oinen kopurua azalera osoan. Balio hori zenbateteko, hutsarteak, heriotza-tasak eta kudeaketa-planean aurreikusitako ebaketak hartu beharko dira kontuan.

22. irudia: Aurreikuspenen arabera, proiektuak iraunaldian zehar sortuko dituen xurgapenen zenbatespena. A aukera: aprobetxamendu ez-intentsiboa *Quercus ilex* espeziearentzat.

IX (8. taula), Espainiako baso-espezien xurgapen-faktoreak erantsi dira, tona CO₂/oinetan kalkulatuta, zenbait denbora-tartetarako (20, 25, 30, 35 eta 40 urte); faktore horietan oinarritzen da kalkulagailua kalkuluak egiteko. Horrela, aztergai dugun adibidean, karbono dioxidoaren xurgapenak guztira eta azalera-unitate bakoitzeko zenbatesten dira: 144,27 t CO₂ eta 48,09 t CO₂/ha, hurrenez hurren (tresnak karbono tona bihurtzen ditu¹⁵: 13,12 t C).

» «Lurzorua»

Erlaitz honetan, hiru datu-blokeak bete behar dira (**23**):

- **1. blokea**

¹⁴ Proiektuaren iraunaldia bukatzean espezia bakoitzerako aurreikusten den xede-oinen kopurua. Balio hori zenbateteko, hutsarteak, heriotza-tasak eta kudeaketa-planean aurreikusitako ebaketak hartu beharko dira kontuan.

¹⁵ Finkatutako C zenbat CO₂ lirakteen jakiteko, masa atomikoa eta molekularra hartzen ditu kontuan tresnak (12 kg C/44 kg CO₂ edo 3,67 kg CO₂/kg C).

Bloke honetan, hiru atal hauek bete beha dira: «Baso-espezie nagusia/laborea», «Lurzoruaren maneia» eta «Intsumoak» (

23), bai egungo egoerarako, bai etorkizuneko erabilera eta maneirako. Horretarako, eta aurreko adibidean azaldu den bezala, erabiltzaileak beharrezkoa den informazio guztia du **XI**n.

- **Gaur egungo erabilera eta maneitik:** zabalgarriaren bidez (auto-osatzeko funtzioa du), erabiltzaileak egungo baso-espeziea sartzen du (*Pinus radiata*). Kalkulagailuak automatikoki erakusten ditu eskualde klimatikoa eta lurzoru mota. Jarraian, menu zabalgarriak eskaintzen dituen aukeren artean lurzoruaren maneia hautatzen da («Eskuzko kablearekin»). Intsumoen kasuan, baso-proiektuen tipologian «Ez dagokio» aukera hautatu behar da.
- **Etorkizuneko erabilera eta maneirantz:** etorkizuneko espeziea sartzen da (*Quercus ilex*). Kalkulagailuak eskualde klimatikoa eta lurzoru mota erakusten ditu. Ondoren, lurzoruaren maneia aukeratzen da zabalgarriko aukeren artean (kasu honetan, «Ez dagokio», aprobetxamendu ez-intentsiboko proiektu bat delako). Intsumoen kasuan, «Ez dagokio» adierazten da.

Egungo erabilera eta maneitik		Etorkizuneko erabilera eta maneirantz	
Lurzoruaren erabilera	Baso_Lurra	Belardiak_larreak	Belardiak_larreak
Baso-espezie nagusia/laborea	Pinus pinaster ssp. atlantica Iparraldeko Barrualdea Pinus pinaster ssp. atlantica Iparraldeko Barrualdea	Belardiak larreak	Belardiak larreak
Eskualde klimatikoa	Klima epel-beroa, hezea	Klima epel-beroa, hezea	Klima epel-beroa, hezea
Lurzoru mota	5-Hareharri kareduna eta kalakarenita. Kareharri dolomitikoak	5-Hareharri kareduna eta kalakarenita. Kareharri dolomitikoak	5-Hareharri kareduna eta kalakarenita. Kareharri dolomitikoak
Lurzoruaren maneia	Kable_bidez_eskuz Kable_bidez_eskuz	Hobetua	Hobetua
Intsumoak	Ez-aplikagarria	Intsumo asko	Intsumo asko

23. irudia: «Lurzorua» fitxako pantaila-argazkia. Erabiltzaileak baso-erabilerari eta -maneiari buruzko datuak bete behar ditu, bai eta etorkizuneko erabilerari eta maneiari buruzkoak ere.

- **2. blokea - Aireko biomasa, proiektua hasi aurretik.**

Adierazi behar dira ekoizpen osoa ($300 \text{ m}^3/\text{ha}$) eta 30 urtetik gorako bitzta baliagarria duten zurezko produktuak ($100 \text{ m}^3/\text{ha}$). Grisez ilundutako eremuak tresnak barnean kalkulatu dituzte: zuraren dentsitatea ($0,38 \text{ tona materia lehor}/\text{m}^3$), hedapen-faktorea ($1,20 \text{ aireko tona}/\text{tona enbor}$) eta karbono-dukia ($0,51 \text{ t C}/\text{t ML}^{16}$). Adibide honetarako, $\text{HWP}_A = 23,26 \text{ t C}/\text{ha}$ balioa lortzen da, eta C_{VEGA} (egungo karbonoa aireko biomasan, hau da, lurzortutik gorako landaredian) $= 69,77 \text{ t C}/\text{ha}^{17}$.

Xurgapen-proiektuen ondorioetarako, bitzta luzeko zurezko produktuetan (HWP_A) biltegitratutako karbonoa bakarrik kontabilizatuko da proiektuaren bidez lortutako xurgapenen zati gisa; egungo aireko biomasan (C_{VEGA}) finkatutako gainerako karbonoa ez da kontabilizatuko, baina tresnan kalkulatu eta bistaratuko da.


- **3. blokea - Nekazaritza-, larre- eta baso-lurzorua**

Erabiltzaileak sartzen ditu lurzoruko karbono organikoaren edukia (%) eta itxurazko dentsitatea ($1,30 \text{ g}/\text{cm}^3$). Lurzoruko materia organikoaren datua edukiz gero (%), karbono organiko bihurtu beharko da, $1,724z$ zatituta (materia organikoaren % 58 inguru karbonoa da). Beraz, $\text{MOren } \% 5 \text{ C-ren } \% 2,90$ bihurtzen da.

Lurzoruaren analitikei dagozkien datuak sartu ondoren, tresnak zenbatesten du lurzoruko karbono organikoa proiektuaren hasieran (SOC_A): $113,11 \text{ t C}/\text{ha}$ (ikus **IV. ERANSKINA - 1. ekuazioa**).

¹⁶ ML: materia lehorra.

¹⁷ **VIII** ekuazioa dator jasota (**7. ekuazioa**), baita erabilitako datuak ere, aire-masako karbonoaren xurgapena kalkulatzeko (**6**) eta kalkulagailuan espezieak biltzeko (**7**).



24. irudia: Basoberritze-adibide baterako pantaila-argazkia, gaur egungo hiru hektarea *Pinus radiata*-tik *Quercus ilex*-erantzi.

Lehenengo kalkulu honetan, tresnak baso-aprobetxamenduen metodoa hartzen du kontuan. Hau da, kontuan hartzen ditu lurzoruan izan daitezkeen aprobetxamendu-metodo desberdinei lotutako karbono-galerak (VI).

Adibide honetan, egungo aprobetxamendua eskuzko kableen bidez egingo da. Horregatik, ez da egungo karbonoa zuzendu behar, karbono-galeraren faktorea batekoa (1) baita (ikus VI - 6. ekuazioa,). Horregatik, SOC_{ACorr} indizearen balioak 113,11 t C/ha-ko emaitza du.

Etorkizuneko erabileraren eta maneiuaren kasuan, SOC_F kalkulatu da lurzoru motaren, karbono-eduki zenbatetsiaren eta proiektuaren iraunaldiaren arabera (ikus VII). Horrela, 100 urterako 132,43 t C/ha-ko SOC_F teorikoa kalkulatu du, eta, proiektuaren iraunaldirako (50 urte), 122,77 t C/ha-koa.

Azkenik, **V. ERANSKINEAN** adierazitakoaren arabera, hauek kalkulatu dira: landarediko eta lurzoruko karbono-finkatzea/-emititzea (erabilitako aprobetxamendu-metodoaren araberrako zuzenketarekin) eta guztizko karbono-erreserbak (24).

B) EMAITZAK

➤ CO₂ emaitzak

Erlaitz honetan, proiektuaren emaitza nagusiak laburbiltzen dira. Datu orokorrez gain, karbono-erreserben kalkulua adierazten da, hala landaredian nola lurzoruan, bai proiektuaren hasieran, bai iraunaldiaren amaieran. Kasu honetan, aireko biomasako erreserbak 0tik 144,27 t CO₂-ra igaro dira, eta bizitza luzeke zurezko produktuek sortutakoak ere zenbatu dira: 255,82 t CO₂. Gainera, lurzoruko erreserbak 1.244,20 t CO₂ izatetik 1.350,46 t CO₂ izatera igaro dira. Beraz, guztira 506 t CO₂ xurgatu dira; horietatik 101 t (% 20) *ex ante* konpentsatzeko prest egongo liriteke, eta 9 t CO₂ berme-poltsari laga beharko litzaizkioke.


EAE-KO CO₂ EX ANTE XURGAPENEN KALKULAGAILUA (BIOMASA ETA LURZORUA)
5. CO₂ EMAITZAK - ETORKIZUNeko XURGAPEN ESKURAGARRIAK EX ANTE KONPENSATZEKO

1. PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK

Proiektuaren sustatzailea	ihobe	IFK/IFZ	12345678-Z
Proiektuaren izena	ihobe		
Probintzia	BIZKAIA	Udalerría	Ibarrangelu
Proiektuaren tipologia	Egunoa	Baso_Lurra	Etorkizuneko
			Belardiak_larreak

2. KARBONO-ERRESERBAK KALKULATZEA

	Eguno erabilera eta maneiotik	Etorkizuneko erabilera eta maneiorantz
Karbono-erreserba landarean	CVEG _l = 0,00 t CO ₂	CVEG _e = 13,96 t CO ₂
Bizitza luzeo zurezko produktak (HWP)		HWP _e = 255,82 t CO ₂
Karbono-erreserba lurzoruan	SOC _l = 1244,20 t CO ₂	SOC _e = 1574,41 t CO ₂
C deskontatua lurzoruko C erreserbetatik		0,00 t CO ₂
Guztizko erreserba (Aireko biomasa + lurzorua)	1244,20 t CO ₂	1844,19 t CO ₂



3. Etorkizuneko xurgapen zenbatetsi eta eskuragarriak ex ante konpentsatzeko

Iraunaldiaren amaierako xurgapenak	t CO ₂
Iraunaldiaren amaierarako zenbatetsitako etorkizuneko xurgapenak	600
Ex ante konpentsatzeko etorkizuneko xurgapen eskuragarriak = % 20ko zenbatekoa	120
BERME-POLTSARI lagatako xurgapenak = xurgapen eskuragarrien % 10	11

25. irudia: «CO₂ emaitzak» orriaren pantaila-argazkia. Bertan laburbiltzen dira iraunaldi-amaieran zenbatetsitako etorkizuneko xurgapenak, *ex ante* konpentsatzeko etorkizuneko xurgapen erabilgarriak (zenbatetsitako % 20) eta berme-poltsari lagatako xurgapenak (xurgapen erabilgarrien % 10). Guztizko erreserben kalkulua (aireko biomasa + lurzorua) V. eranskinaren. *arabera egiten da.*

➤ «Erregistroa»

Azken erlantz honetan ikus daiteke proiektu hau ezin izango litzatekeela inskribatu MITECOren xurgapen-proiektuen erregistroan; izan ere, ez da erabilera-aldaketarik gertatzen (baso-erabilera mantentzen da), eta erregistro horrek jasotzen ditu, soilik, erabilera aldatzen duten basoberritzeak edo suteetan erretako basoetan egiten diren jarduketak, lehendik zegoen baso-masa berreskuratzeko. Hala ere, lursailaren xedea aldatzea aurreikusten duen erregistro batean inskriba liteke, ekoizpen-erabilera batetik aprobetxamendurik gabeko babes- edo lehengoratzte-erabilera batera igaroz.

EMISIOAK KONPENSATZEKO EKIMENETAN INSKRIBATZEKO PREST DAUDEN XURGAPENEN BANAKAPENA (BIOMASA + LURZORUA)						
<p>Gaur egun ez dago inolako erregistrorik guztizko xurgapenak (biomasa + lurzorua) eta nekazaritza-lurzoruen eta larreen kudeaketa-aldaketak jasotzen dituenik. Hemen aurkeztutako xurgapenak erakusten dute proiektuak zer-nolako potentziala duen etorkizunean sor daitezkeen konpentsazio-ekimenen bidez; (1) (Ihobe) edo MITECOren egungo erregistroan inskriba daitezkeen bidez (2)</p>						
<p>© ihobe 2021 © NEIKER 2021</p>	Egungo erabilera eta maneiutik	Etorkizuneko erabilera eta maneiurantz	Aldea	Etorkizuneko xurgapenak ex ante konpentsatzeko eskuragarri (% 20)	Berme-poltsa (% 10)	
	C erreserbak landaredian	0,0 t CO2	14,0 t CO2	269,8 t CO2	54,0 t CO2	4,9 t CO2
	Bizitza luzeko zurezko produktuak (HWP) + DOM		255,8 t CO2			
	C erreserbak lurzoruan	1244,2 t CO2	1574,4 t CO2	330,2 t CO2	66,0 t CO2	6,0 t CO2
	C deskontatua lurzoruko C erreserbetatik		0,0 t CO2			
Guztizko erreserbak (Aireko biomasa + lurzorua)	1244,2 t CO2	1844,2 t CO2	600,0 t CO2	120,0 t CO2	10,9 t CO2	
<p>Karbono-aztarnaren, konpentsazioaren eta xurgapen-proiektuen erregistroa (aireko baso-biomasa):</p> <p>Baso-proiektuen aireko biomasak sortutako xurgapenak Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikoko Ministerioaren Karbono-aztarnaren, Konpentsazioaren eta CO₂ Proiektuen Erregistroan inskriba daitezke. Informazio gehiago: https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/mitigacion-politicas-y-medidas/registro-huella.aspx</p>						
<p>© MITECO 2021</p>	Egungo erabilera eta maneiutik	Etorkizuneko erabilera eta maneiurantz	Aldea	Etorkizuneko xurgapenak ex ante konpentsatzeko eskuragarri (% 20)	Berme-poltsa (% 10)	
	C erreserbak landaredian	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2
	C erreserbak lurzoruan	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2
	Guztizko erreserbak (Aireko biomasa + lurzorua)	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2	0,0 t CO2

26. irudia: «Erregistroa» orria. Bertan, emisioak konpentsatzeko ekimenetan inskriba litezkeen xurgapenak banakatzen dira. Tresnak orriarekin .pdf formatuko fitxategi bat sortzeko aukera ematen du.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Calculadora-MITECO, 2018 (4. bertsioa). MITECOren informazioa karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuei buruz, hemen eskuragarri: <https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/mitigacion-politicas-y-medidas/calculadoras.aspx>

2010/335/EE Erabakia. Batzordearen erabakia, lurzoruko karbono-erreserbak kalkulatzeko jarraibideei buruzkoa, 2009/28/EE zuzentarauko [C(2010) 3751 zenbakiarekin jakinarazia] V. eranskinaren ondorioetarako.

IPCC, 2006. 2006 IPCC Guidelines for National Greenhouse Gas Inventories. 4. liburukia. 2006. Eggleston H.S., Buendia L., Miwa K., Ngara T. eta Tanabe K. (ed). Prepared by the National Greenhouse Gas Inventories Programme. Argitaratua: IGES, Japonia. ISBN 4-88788-032-4. Eskuragarri hemen: <http://www.ipcc-nggip.iges.or.jp/public/2006gl/index.html>.

IPCC, 2007. Cambio climático 2007: Laburpen-txostena Contribución de los Grupos de trabajo I, II y III al Cuarto Informe de evaluación del Grupo Intergubernamental de Expertos sobre el Cambio Climático. [Idazketa-talde nagusia: Pachauri, R.K. eta Reisinger, A. (argitalpenaren zuzendariak)]. IPCC, Geneva, Suitza, 104 or.

IPCC, 2019. 2019 Refinement to the 2006 IPCC Guidelines for National Greenhouse Gas Inventories. Eskuragarri hemen: <https://www.ipcc-nggip.iges.or.jp/public/2019rf/index.html>

NEIKER, 2014. Euskal Autonomia Erkidegoko karbono-hustutegiak: bahitzeko ahalmena eta horiek sustatzeko neurriak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitaratua. KONTSULTATZeko eta deskargatzeko esteka:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sumideros_carbono/eu_def/adjuntos/sumideros_eu.pdf

I. ERANSKINA. PROIEKTU-TIPOLOGIAK

EAEko CO₂ *ex ante* xurgapenen kalkulagailua honelako proiektu, jarduera eta praktiketarako diseinatuta dago: finkatutako karbonoak, gutxienez, proiektuaren iraunaldi-amaiera arte irautea helburu dutenak. Horretarako, kudeaketa-plan bat egitea komeni da.

Proiektu-tipologiak lurrari ematen zaion erabileraren arabera dira, neurri handi batean (1. koadroa); erabilera hori, inskripzio-ondorioetarako, Kyotoko Protokolutik eta IPCCtik eratorritako definizioen bidez zehaztuko da¹⁸.

1. koadroa: kontuan hartu beharreko luraren erabilera-kategorien deskribapena.

- **Baso-lurrak (edo basoak):**

Landare nagusi gisa baso-espezie zuhaizkarez osatutako lurrak hartzen ditu, honako parametro hauetara egokitzen direnak:

- Estalitako edukieraren frakzio (EEF) minimoa: % 20.
- Azalera minimoa: hektarea 1.
- Zuhaitz helduen altuera minimoa: 3 metro.

Basotzat hartu behar dira, halaber, behin behinean muga horiek baino balio txikiagoak dituzten landaretza-sistemak (arrazoi naturalengatik –adibidez, suteak edo izurriak– edo gizakien esku-hartzeengatik –adibidez, zura erauztea–), baina gaudituko dituztela aurreikusten direnak.

Gainera, azalera lineal bat basotzat hartzeko, 25 metroko gutxienerako zabalera-muga bat ezartzen da. Hala ere, murrizketa hori ez zaie aplikatzen egitura irregularreko, jatorri naturaleko eta biodibertsitate handiko espezie autoktonoak edo basatuak dituzten zuhaitzez betetako erriberei, balio ekologiko handia baitute; gisa horretako erribera horiek basotzat hartzen dira.

- **Laborantza-lurrak:**

Kategoria honetan, landutako lurra sartzen da, arroz-soroak eta nekazaritza-basogintzako sistemak barne, zeintzuetan landarediaren egitura baso-lurren kategoriarako erabiltzen diren atalaseen azpitik baitago.

Urteko labore guztiak (labore belarkarak hala nola zerealak, lekaleak, tuberkuluak, labore industrialak eta bazka-laboreak) eta labore iraunkorrak (urte anitzeko zikloko landare zurkarak, hala nola fruta-arbolak eta mahastiak) sartzen dira, baita lugorriak ere (urte batez edo gehiagoz atsedean hartzeko landu gabe uzten diren lurrak).

- **Larreak (edo larre-lurrak):**

Kategoria honetan sartzen dira artzaintzarako lurrak eta belarki- edo zuhaixka-landaredia nagusi duten larreak, bai eta % 10eko edo gehiagoko EEFko landaredia zurkara dutenak ere, ez direnak laborantza-lurtzat hartzen, eta, aldi berean, baso-lurren kategorian erabiltzeko atalase-balioen azpitik daudenak.

Lurzoruaren erabilera-kategorien arabera, kalkulagailuak proiektu-tipologia hauek hartzen ditu kontuan:

¹⁸ Definizioak honako iturri hauetatik hartu ditugu:

- Honen 4. liburukiaren 3. kapituluak: IPCC 2006, 2006 IPCC Guidelines for National Greenhouse Gas Inventories, Prepared by the National Greenhouse Gas Inventories Programme, Eggleston H.S., Buendia L., Miwa K., Ngara T. eta Tanabe K. (ed). Argitaratzailea: IGES, Japonia.
- Marrakexeko erabakiak (COP 7, Marrakex, 2001eko urria-azaroa) (11. erabakia/CP.7).

- NIR txostena, 2020an Espainiak Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Idazkaritzari igorria («Edición 2020 (serie 1990-2018). Informe de inventario nacional de gases de efecto invernadero. Comunicación al Secretariado de la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el cambio climático»). Eskuragarri hemen:

<https://unfccc.int/ghg-inventories-annex-i-parties/2020>

- Proiektuak baso-lur bihurtzen diren lurretan
- Proiektuak kudeaketaz aldatzen diren baso-lurretan
- Proiektuak suak hartutako baso-eremuetan baso-masa bat ezartzeko jarduketei buruz
- Beste proiektu batzuk, baso-kudeaketan oinarrituak
- Proiektuak kudeaketa aldatzen duten laborantza-lurretan
- Proiektuak kudeaketa aldatzen duten larreetan
- Proiektuak larre bihurtzen diren laborantza-lurretan

Jarraian, adierazitako kategoria bakoitza deskribatzen da:

A. PROIEKTUAK BASO-LUR BIHURTZEN DIREN LURRETAN.

Baso-sartzeak eta basoberritzeak dira¹⁹, Kyotoko Protokoloan definitutako moduan, eta, labur-labur, honi dagozkio: *nahita egiten den jarduketa bat, gutxienez 1989ko abenduaren 31tik jarduketaren unera arte basoa ez den lursail batean, basoa ezartzeko*. Beraz, **baldintza hauek** bete behar dituzte:

- Baso-lurra ez den lursail bat zuhaitzez osatutako baso-lur bihurtzea gertatu beharra dago kategoria honetan sartzeko.
- Aldi bat egon behar da (50 urte edo 1989ko abenduaren 31tik aurrera), zeinean jarduketa egiten den lursaila ez baita baso izan.
- Aldaketa hori gizakiak eragina izan behar da.

Kasu hori izango litzateke, adibidez, 1989ko abenduaren 31tik 2021era nekazaritza-lursail edo larre izandako bat, azken urte horretan basoberritzea egin ondoren baso izatera igarotzen dena.

Horrelako proiektuak, gainera, MITECOren erregistroan²⁰ inskriba daitezke, **A motan**: «**lurzoruaren erabilera-aldaketa dakarten basoberritzeak**».

Proiektuek bete beharreko **baldintzak**:

- **Baso-lur bihurtzea**: xurgapen-proiekturako *baso-masa* bat ezarri behar da, Klima Aldaketari Buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Kyotoko Protokoloaren harira Espainiak hartu zuen *baso*-definizioa betetzen duena (**1. koadroa**).
- **Aldez aurretik baso-lur erabilera ez izatea**: xurgapen-proiektua hasi aurretik, gutxienez 1989ko abenduaren 31tik aurrera, proiektua kokatuko den azalera ez zen baso-lurra, basoa edo baso-landaketa (Espainiak Kyotoko Protokolorako hartu zuen *baso*-definizioaren arabera).
- **Iraunaldia \geq 30 urte**: xurgapen-proiektuaren erakunde edo pertsona sustatzaileak baso-masa kudeatzeko eta haren iraunaldia bermatzeko konpromisoa hartzen duen denbora da. Iraunaldia 50 urtetik gorakoa bada, biomasarako *ex ante* kalkuluak 50 urteko jomuga kontuan hartuta egiten dira, hain aldi luzei lotutako ziurgabetasunaren ondorioz; lurzorurako kalkuluak, aldiz, iraunaldi osoa kontuan hartuta egiten dira.
- **Baso-masaren kudeaketa mota**: proiektuak **kudeaketa-plan** bat izan behar du (agintaritza eskudunak baimendua), bermatuko duena, ezarritako iraunaldian gutxienez, jarduketaren arrakasta eta ezaugarri jakin batzuk dituen baso-masa bat. Kudeaketarik intentsiboek zein intentsitate txikiagokoek

¹⁹ «**Baso-sartzea**»: gutxienez berrogeita hamar urtez basoa izan ez den lur bat baso bihurtzea, gizakiak zuzenean esku hartuz –hazi-iturri naturalak landatuz, ereinez eta/edo hazi-iturri naturalak bultzatuz–, eraldaketa hori 1989ko abenduaren 31tik aurrera egin bada.

«**Basoberritzea**»: baso-lur ez diren lurak baso-lur bihurtzea, gizakiak zuzenean esku hartuz –hazi-iturri naturalak landatuz, ereinez eta/edo hazi-iturri naturalak bultzatuz–, honelako lurretara mugatzen dena: 1990eko urtarrilaren 1a baino lehen baso-lur izateari utzirik, 1989ko abenduaren 31tik aurrera berriro baso-lur bihurtu direnak.

²⁰ MITECOren Erregistroan inskriba daitezkeen xurgapen-proiektuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu hemen: <https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/mitigacion-politicas-y-medidas/inscripcion-registro.aspx>

konpromisoa hartu behar dute iraunaldian zehar aurrez ezarritako ezaugarriak izango dituen baso-masa bat izateko. Kanpoan uzten dira ziklo laburreko hazkuntza duten baso-zuhaitzak (gehienez ere 8 urteko zikloa dutenak).

Baso-lur bihurtzea dakarten xurgapen-proiektuen artean, CO₂-xurgapenak kalkulatzeko metodologia ezberdina duten bi proiektu mota bereizten dira:

a) **Zur-xederik gabeko basoberritzeak edo aprobetxamendu ez-intentsibokoak:** CO₂ kalkulatzeko, onartzen da baso-masak biomasa handitzen duela iraunaldi osoan zehar. Bi motatako basoberritzeak hartzen dituzte:

- Zur-xederik gabeko basoberritzea.
- Basoberritzea, CO₂ xurgatzeko proiektuaren iraunaldia baino ebaketa-txanda handiagoa duten espezieekin.

b) **Aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeak, baso-soilketak:** aprobetxamendu intentsiboko basoberritzeak zeintzuetan ebaketa-txanda CO₂ xurgatzeko proiektuaren iraunaldia baino laburragoa baita. CO₂ kalkulatzeko, onartzen da basoberritze horietan iraunaldiaren amaieran lortzen diren xurgapenak txandak irauten duen denboran izandako xurgapenen batezbestekoa direla.

Kudeaketa-planak oinarritzko informazioa ere jasoko du, hala nola:

- **Azaleraren kokapena:** Katastroko edo SIGPACeko erreferentziak, proiektuaren lursailak eta azpi-lursailak adieraziz (20 karakterez osatutako kode alfanumerikoa). Lursailaren edo lursailen azalera osoa eta lursail bakoitzean landatutako baso-espezie bakoitzaren azalera sartu behar da.
- **Denbora-zehaztapena:** landaketa-urtea.
- **Planifikatutako baso-kudeaketaren deskribapena:**
 - Proiektuan egin beharreko baso-jarduketan kronograma (suteen aurkako kudeaketa, bakantzeak, aprobetxamenduak, etab.).
 - Proiektuaren aurretik SIGPACeko edo katastroko lursail bakoitzean zeuden aprobetxamenduen deskribapena.
 - Hasierako oin kopurua eta iraunaldi-amaierarako aurreikusten dena (edo xede dena), zenbaki horiek berdinak edo desberdinak izatearen arrazoiak azalduz (hutsarteak, heriotza-tasak, etab.).
 - Sortutako ingurumen-zerbitzuen deskribapena, halakorik balego, nahiz eta karbonoa finkatzearekin zerikusirik ez izan.
 - Titularrek jarraipena egiteko konpromisoa.

B. PROIEKTUAK KUDEAKETAZ ALDATZEN DIREN BASO-LURRETAN.

Tipologia honetan sartzen diren proiektuak kudeaketaz aldatzen diren baso-lurretan oinarritutakoak dira. Kyotoko Protokoloaren esparruan, proiektu-tipologia hori «**baso-kudeaketa**» jardueraren barruan sartzen da, uste baita ez dagoela aldaketarik lurzoru-erabileran (adibidez: erretako baso-lursail batek baso-erabilerari eusten dio, non eta bertan eraikitzen ez den edo labore-lur edo larre bihurtzen ez den; baso-erabilerari eusten dio, halaber, behin ebakita hazkunde moteleko espezieekin basoberritzen den edozein baso-landaketak; etab.).

Nolanahi ere, karbono dioxidoa xurgatzeko helburuak betetzen direla bermatuko duen **kudeaketa-plan** bat egitea gomendatzen da, A proiektuen tipologiarako adierazitakoaren antzeko edukia izango duena.

C. PROIEKTUAK SUAK HARTUTAKO BASO-EREMUETAN BASO-MASA BAT EZARTZEKO JARDUKETEI BURUZ

Tipologia horretan sartzen dira erretako basoetan baso-masa berreskuratzean oinarritutako proiektuak. Kyotoko Protokoloaren esparruan, proiektu-tipologia hori «**baso-kudeaketa**» jardueraren barruan sartzen da.

Kasu horretan, ekimenaren xede den azalera basotsua zen aurrez, eta, sute baten ondorio, izaera hori galdu zuen. Beraz, karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuaren egitekoa zera da: gizakiak zuzenean esku hartuz –hazi-iturri naturalak landatuz, ereinez eta/edo hazi-iturri naturalak bultzatuz–, azalera horretan basoaren aurretiko egoera berrezartzea, espezieei eta egiturari dagokienez aurreko basoaren ahalik eta baldintza antzekoenekin, betiere baso hori ez bazen kudeaketarik ezaren ondorioz eraldatutako eremua.

Horrelako proiektuak MITECOren xurgapen-proiektuen erregistroan²¹ inskriba daitezke, **B motan**: «**suak hartutako baso-eremuetan baso-masa bat ezartzeko jarduketak**».

Horrelako proiektuek bete behar dituzten **baldintzak** hauek dira:

- **Baso-lur bihurtzea**: xurgapen-proiekturako *baso-masa* bat ezarri behar da, Klima Aldaketari Buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Kyotoko Protokoloaren harira Espainiak hartu zuen *baso*-definizioa betetzen duena (**1. koadroa**).
- **Aldez aurreko erabilera baso-lurra izatea**: sutearen aurretik ere, xurgapen-proiektua baso-lurra, basoa edo baso-landaketa zen (Espainiak Kyotoko Protokolorako hartu zuen *baso*-definizioaren arabera).
- **Iraunaldia \geq 30 urte**: xurgapen-proiektuaren erakunde edo pertsona sustatzaileak baso-masa kudeatzeko eta haren iraunaldia bermatzeko konpromisoa hartzen duen denbora da. Iraunaldia 50 urtetik gorakoa bada, biomasarako *ex ante* kalkuluak 50 urteko jomuga kontuan hartuta egiten dira, hain aldi luzei lotutako ziurgabetasunaren ondorioz; lurzorurako kalkuluak, aldiz, iraunaldi osoa kontuan hartuta egiten dira.
- **Baso-masaren kudeaketa mota**: proiektuak **kudeaketa-plan** bat izan behar du (agintaritza eskudunak baimendua), bermatuko duena, ezarritako iraunaldian gutxienez, jarduketaren arrakasta eta ezaugarri jakin batzuk dituen baso-masa bat. Kudeaketarik intentsiboek zein intentsitate txikiagokoek konpromisoa hartu behar dute iraunaldian zehar aurrez ezarritako ezaugarriak izango dituen baso-masa bat izateko.

Honako muga hau ezartzen da inskriba daitezkeen proiektuen kudeaketari dagokionez: kanpoan uzten dira ziklo laburreko hazkuntza duten baso-zuhaitzak. Izena emateko ondorioetarako, ziklo laburreko baso-landaketatzat hartzen dira gehienez ere 8 urteko zikloa dutenak.

D. BESTE PROIEKTU BATZUK, BASO-KUDEAKETAN OINARRITUAK

Tipologia honetan sartzen dira erretako basoetan baso-masa berreskuratzean oinarritutako baso-kudeaketako proiektuak ez diren gainerakoak. Kyotoko Protokoloaren esparruan, proiektu-tipologia hori «**baso-kudeaketa**» jardueraren barruan sartzen da.

Proiektu horietan, ekimenaren xede den azalera basotsua zen aldez aurretik, eta etorkizunean ere hala izango da, baina kudeatzeko erak aldatuko dira sisteman karbono gehiago xurgatzea espero den beste batzuetara (adibidez, aprobetxamendu era jasangarriagoetara aldatuz edo baso-espezieak aldatuz). Baso-kudeaketaren aldaketa, oro har, baso-lurren erabilerarako eta administrazioarako praktika-sisteman aldaketak izango dira, basoak funtzio ekologikoak (dibertsitate biologikoa barne), ekonomikoak eta sozialak modu jasangarrian bete ditzan.

Horrelako proiektuetan, bete beharreko **baldintzak** hauek dira:

²¹ MITECOren Erregistroan inskriba daitezkeen xurgapen-proiektuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu hemen: <https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/mitigacion-politicas-y-medidas/inscripcion-registro.aspx>

- **Baso-lur izaten jarraituko duen lurra:** xurgapen-proiektuaren aurretik zein ondotik, *baso-masa* horrek *baso* izaten jarraituko du Klima Aldaketari Buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Kyotoko Protokoloaren harira Espainiak egin zuen definizioaren arabera (**1. koadroa**).

Nabarmentzekoa da, adibidez, baldin eta abiapuntua baso bat bota ondorengo bilakaera naturaletik sortutako sastraka bada, eta baso-espezieak landatuz xurgapen-proiektu bat abian jarri nahi bada, baso-kudeaketako proiektutzat hartuko dela, eta ez baso-sartze edo basoberritzetzat, betiere aurreko basoa 1989ko abenduaren 31 ondoren existitzen bazen.

- **Iraunaldia \geq 30 urte:** xurgapen-proiektuaren erakunde edo pertsona sustatzaileak baso-masa kudeatzeko eta haren iraunaldia bermatzeko konpromisoa hartzen duen denbora da. Iraunaldia 50 urtetik gorakoa bada, biomasarako *ex ante* kalkuluak 50 urteko jomuga kontuan hartuta egiten dira, hain aldi luzei lotutako ziurgabetasunaren ondorioz; lurzorurako kalkuluak, aldiz, iraunaldi osoa kontuan hartuta egiten dira.
- **Baso-masaren kudeaketa mota:** proiektuak kudeaketa-plan bat izan behar du (agintaritza eskudunak baimendua), berrmatuko duena, ezarritako iraunaldian gutxienez, jarduketaren arrakasta eta ezaugarri jakin batzuk dituen baso-masa bat. Kudeaketarik intentsiboek zein intentsitate txikiagokoek konpromisoa hartu behar dute iraunaldian zehar aurrez ezarritako ezaugarriak izango dituen baso-masa bat izateko. Honako muga hau ezartzen da: kanpoan uzten dira ziklo laburreko hazkuntza duten baso-zuhaitzak. Izena emateko ondorioetarako, ziklo laburreko baso-landaketatzat hartzen dira gehienez ere 8 urteko zikloa dutenak.

E. PROIEKTUAK KUDEAKETA ALDATZEN DUTEN LABORANTZA-LURRETAN

Tipologia honetan sartzen diren proiektuek, laborantza-lurren kudeaketan izandako aldaketen ondorioz, karbono dioxido gehiago xurgatzen dute, landare-biomasan nahiz lurzoruan. Kyotoko Protokoloaren esparruan, proiektu-tipologia hori «**laborantza-lurren kudeaketa**» jardueraren barruan sartzen da. Oro har, laborantza-lurren kudeaketa-aldaketak erreferentzia egiten die bai nekazaritzarako erabiltzen diren lurretan bai erreserban dauden edo nekazaritzarako aldi baterako erabiltzen ez diren lurretan egiten diren praktiken sistemetan egiten diren aldaketei (adibidez, ohiko laborantzatik ez-laborantzarako aldaketa, ongarri mineralak organikoekin ordeztzea, etab.).

Laborantza-lurren kudeaketan aldaketak dakartzaten xurgapen-proiektuen artean, **bi proiektu mota** bereizten dira:

- a) **Labore belarkarak zirkarekin ordeztzea:** oro har, karbono dioxido gehiena xurtatzen da zur-biomasan karbonoa finkatzaren ondorioz. Kasu batzuetan, lurzoruko karbono organikoaren gehikuntza ere gerta daiteke. Onartzen da zur-landareak bere biomasa handitzen duela iraunaldi osoan zehar, betiere denbora hori landarearen bizi-zikloa baino txikiagoa bada²².
- b) **Lurzoruko karbonoaren gehikuntzarekin lotutako kudeaketa-praktiketan beste aldaketa batzuk:** belarki-laboreekin jarraitzen denez, ez da espero landare-biomasak karbono dioxido gehiago xurgatzea. Karbono dioxidoaren xurgapena lurzoruko karbono organikoaren gehikuntzatik etorriko da.

Horrelako proiektuetan, honako **baldintza** hauek bete behar dira:

- **Laborantza-lur izaten jarraituko duen lurra:** xurgapen-proiektuak laborantza-praktikak aldatzea dakar, baina betiere laborantza-lurretan, bai proiektua hasi aurretik, bai ondoren.
- **Iraunaldia \geq 10 urte:** xurgapen-proiektuaren sustatzaileak zehazten duen iraunaldian, konpromisoa hartzen du proiektuan definitutako laborantza-praktika berrien arabera kudeatzeko lurra, eta berrmatzen du praktika horiekin denbora horretan zehar jarraituko duela.

²² Karbono dioxidoaren *ex ante* xurgapenen kalkulua egiteko, abiapuntutzat hartzen da zur-landareak 30 urte bete arte handitzen joaten dela biomasan finkatutako karbonoa.

- **Laborantza-lurraren kudeaketa mota:** proiektuak kudeaketa-plan bat izan behar du (agintaritzaren eskudunak baimendua), bermatuko duena, ezarritako iraunaldian gutxienez, kudeaketa-planean zehaztutako jardueren arrakasta. **Kudeaketa-planak** informazio hau jaso behar du, bestek beste:
 - **Azaleraren kokapena:** katastroko edo SIGPACeko erreferentziak sartu behar dira, hauek adieraziz: proiektuaren lursailak eta azpi-lursailak (20 karakterez osatutako kode alfanumerikoa), lursailaren edo lursailen azalera osoa eta kudeaketa-aldaketa izango duen lursail bakoitzaren azalera.
 - **Denbora-zehaztapena:** kudeaketa-aldaketaren hasiera-urtea.
 - **Planifikatutako kudeaketaren eta aurreko kudeaketarekiko aldaketaren deskribapena:**
 - **Xurgapen-proiektua hasi ondorengo kudeaketa:** proiektuan egin beharreko jarduerak (laborantza egingo den modua, ongariak eta lur-medegarriak aplikatzeko irizpideak, uzta-hondakinekin lotutako praktikak, etab.).
 - **Proiektuaren aurreko kudeaketa:** xurgapen-proiektua baino lehen egiten ziren jarduketak. Jarduketa horien deskribapenak 5 urtetik gorako aldia laburbildu behar du. Jarduketa horiek aurreko kanpainetako ustiapen-koadernoaren bidez laburbil daitezke.
 - **Lurraren aurreko erabileren deskribapena:** SIGPACeko edo katastroko lursail bakoitzean lurzoruak proiektuaren aurretik zituen erabilerak deskribatuko dira, 20 urte atzera eginez.
 - **Sortutako ingurumen-zerbitzuen deskribapena,** halakorik balego, nahiz eta karbonoa finkatzearekin lotuta ez egon.
 - Titularrek **jarraipena egiteko konpromisoa.**

F. PROIEKTUAK KUDEAKETA ALDATZEN DUTEN LARREETAN

Tipologia honetan, kudeaketa aldatzen duten eta karbono dioxido gehiago xurgatzen duten larreetan – lurzoruko karbono organikoaren gehikuntzatik abiatuta– oinarritutako proiektuak sartzen dira. Kyotoko Protokoloaren esparruan, «**larreak edo bazkalekuak kudeatzeko**» jardueraren barruan sartzen dira. Oro har, larreen kudeaketa-aldaketak erreferentzia egiten die abeltzaintza-lurren praktika-sisteman gertatutako aldaketei, hain zuzen sortutako landarediaren eta aberen kopurua eta mota aldatzeko (adibidez, ongari mineralen ordez organikoak erabiltzea, txandakako artzaintza, etab.).

Horrelako proiektuetan bete beharreko **baldintzak** hauek dira:

- **Larre izaten jarraituko duen lurra:** xurgapen-proiektuak laborantza-praktikak aldatzea dakar, baina betiere larre-lur izanik (belar-soroak, larreak, sastrakak, bazkalekuak edo antzekoak), bai proiektua hasi aurretik, bai ondoren.
- **Iraunaldia \geq 10 urte:** xurgapen-proiektuaren sustatzaileak zehazten duen iraunaldian, konpromisoa hartzen du proiektuan definitutako laborantza-praktika berrien arabera kudeatzeko lurra, eta bermatzen du praktika horiekin denbora horretan zehar jarraituko duela.
- **Larrearen kudeaketa mota:** proiektuak kudeaketa-plan bat izan behar du, bermatuko duena, ezarritako iraunaldian gutxienez, kudeaketa-planean zehaztutako jardueren arrakasta. Kudeaketa-plan hau gai horretan eskuduna den agintaritzak baimendu behar du, eta, besteren artean, informazio hau eduki beharko du:
 - **Azaleraren kokapena:**
 - Katastroko edo SIGPACeko erreferentziak, proiektuaren xede diren lursail eta azpi-lursail guztiena (20 karakterez osatutako kode alfanumerikoa).
 - Kudeaketa-aldaketa izango duen lursailaren edo lursailen azalera osoa eta kudeaketa-aldaketa izango duen lursail bakoitzaren azalera.

- **Denbora-zehaztapena:** kudeaketa-aldaketaren hasiera-urtea.
- **Planifikatutako kudeaketaren eta aurreko kudeaketarekiko aldaketaren deskribapena:**
 - **Xurgapen-proiektua hasi ondorengo kudeaketa:** proiektuan egin beharreko jarduerak (ongarriak eta lur-medegarriak aplikatzeko irizpideak, larre-espezieei lotutako praktikak, berrereiteak, ureztatzea, artzaintza, etab.).
 - **Proiektuaren aurreko kudeaketa:** xurgapen-proiektua baino lehen egiten ziren jarduketak. Jarduketa horien deskribapenak 5 urtetik gorako aldia laburbildu behar du. Jarduketa horiek aurreko kanpainetako ustiapen-koadernoaren bidez laburbil daitezke.
 - **Lurraren aurreko erabileren deskribapena:** SIGPACeko edo katastroko lursail bakoitzean lurzorua proiektuaren aurretik zituen erabilerak deskribatuko dira, 20 urte atzera eginez.
 - Sortutako ingurumen-zerbitzuen deskribapena, halakorik balego, nahiz eta karbonoa finkatzearekin lotuta ez egon.
 - Titularrek **jarraipena egiteko konpromisoa**.

G. PROIEKTUAK LARRE BIHURTZEN DIREN LABORANTZA-LURRETAN

Tipologia honetako proiektuetan, lurraren erabilera-aldaketen kausaz laborantza-lurra larre bihurtzen dira eta karbono dioxido gehiago xurgatzen da (lurzoruko karbono organiko kantitatea handitzearen ondorioz). Horrelako proiektuak ezin dira MITECOren erregistroan inskribatu, eta Kyotoko Protokoloaren esparruan ere ez dira jasotzen.

Baldintza hauek betetzea eskatzen dute:

- **Larre-lur bihurtzea:** xurgapen-proiektuak bazkaleku, belar-soro, larre... berria ezartzea eskatzen du.
- **Aldez aurretik laborantza-lurra izatea:** xurgapen-proiektuaren aurreko 20 urteetan, gutxienez, proiektua kokatuko den azalera laborantza-lurra zen.
- **Iraunaldia \geq 10 urte:** xurgapen-proiektuaren sustatzaileak zehazten duen iraunaldian, konpromisoa hartzen du proiektuan definitutako erabilera berriaren eta laborantza-praktika berrien arabera kudeatzeko lurra, eta bermatzen du praktika horiekin denbora horretan zehar jarraituko duela.
- **Larre-lurraren kudeaketa mota:** proiektuak kudeaketa-plan bat izan behar du (agintaritza eskudunak baimendua), bermatuko duena, ezarritako iraunaldian gutxienez, kudeaketa-planean zehaztutako jardueren arrakasta. **Kudeaketa-planak** informazio hau jaso behar du, besteak beste:
 - **Azalaren kokapena:**
 - Katastroko edo SIGPACeko erreferentziak, proiektuaren lursailak eta azpi-lursailak adieraziz (20 karakterez osatutako kode alfanumerikoa). Proiektuak hainbat lursail hartzen baditu, horien guztien erreferentzia katastralak jaso behar dira.
 - Kudeaketa-aldaketa izango duen lursailaren edo lursailen azalera osoa eta kudeaketa-aldaketa izango duen lursail bakoitzaren azalera.
 - **Denbora-zehaztapena:** kudeaketa-aldaketaren hasiera-urtea.
 - Laborantza-lurren aurreko erabileraren eta kudeaketaren deskribapena, bai eta erabilera berrirako (larre-lurra) planifikatutako kudeaketarena ere:


- **Xurgapen-proiektua hasi ondorengo kudeaketa:** proiektuan egin beharreko jarduerak (ongarriak eta lur-medegarriak aplikatzeko irizpideak, larre-espezieei lotutako praktikak, berrereiteak, ureztatzea, artzaintza, etab.).
- **Proiektuaren aurreko kudeaketa:** laborantza-lurrean xurgapen-proiektuaren aurretik egiten ziren jarduketaren deskribapena. Jarduketa horiek aurreko kanpainetako ustiapen-koadernoaren bidez laburbil daitezke (5 urte baino gehiagorako).
- **Lurraren aurreko erabileraren deskribapena, laborantza-lurra zenean:** SIGPACeko edo katastroko lursail bakoitzean lurzoruak proiektuaren aurretik izan duen erabilera historikoa deskribatuko da, 20 urte atzera eginez.

Gainera, deskribatutako proiektuaren bat xurgapen-proiektuak erregistratzeko ekimenetan inskribatu nahi izanez gero, proiektu horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- **Gauzatutako proiektua abian jartzea:** proiektua abian jarri dela frogatu behar da. Oraindik gauzatu ez bada baina 2 urtetik beherako epean egingo bada, ezingo da inskribatu/atxiki, baina bai aurreinskripzioa/aurreatxikipena eskatu. Horrek erraztu egingo du aurrez inskribatutako proiektuek lagatutako xurgapenetan interesa izan dezaketen enpresekin harremanetan jartzea.
- **Xurgapen-proiektua 2013/01/01 ondoren hastea:** data hori Kyotoko Protokoloaren bigarren konpromiso-aldiaren abiapuntuaren data da.

II. ERANSKINA. EAE-KO UDALERRIEN ZONAKATZE KLIMATIKOA.

Kalkulagailua IPCCren gidaren sailkapen klimatikoan oinarritzen da (IPCC, 2006), eta honako hauetan funtsatzen da: elebazioan, tenperaturaren urteko batezbestekoan (MAT, ingeleseko *mean annual temperature* kontzeptutik), prezipitazioen urteko batezbestekoan (MAP, ingeleseko *mean annual precipitation* kontzeptutik), prezipitazioen urteko batezbestekoaren eta ebapotranspirazio potentzialaren arteko $-MAP/PET$, ingeleseko *mean annual precipitation to potential evapotranspiration ratio* kontzeptutik–batezbestekoan, eta izozteen intzidentzian (27). Irizpide horien arabera, EAeko udalerriak zona klimatikoka sailkatzen dira (1. taula, 2 eta 3).



27. irudia: Eskualde klimatikoak sailkatzeko eredu, besterik ezean (IPCC, 2006).

1. **taula:** ARABAko udalerrien zonakitze klimatikoak, IPCCren sailkapen-ereduaren arabera (IPCC, 2006). MAP: prezipitazioen urteko batez bestekoa (mm); ETP: ebapotranspirazioa (mm); MAT: tenperaturaren urteko batez bestekoa (°C). MAP/ETP: prezipitazioen eta ebapotranspirazioaren urteko batezbestekoaren arteko ratioa. Zona klimatikoa (ZK): ZK 1: epel beroa, lehorra; ZK 2: epel beroa, hezea. Udalerri bakoitzeko datu klimatikoak [MITECO \(SIFA\)ren Nekazaritzako Datuen Informazio Geografikoko Sistema](#)tik eskuratu ziren.

Udalerria	MAP	ETP	MAT	MAP/ETP	ZK	Udalerria	MAP	ETP	MAT	MAP/ETP	ZK
Dulantzi	834	661	11,20	1,26	2	Laudio	1090	675	12,20	1,61	2
Amurrio	1162	688	12,10	1,69	2	Arraia-Maetzu	895	650	10,90	1,38	2
Aramaio	1358	643	10,70	2,11	2	Moreda	456	733	13,10	0,62	1
Artziniega	1220	689	12,40	1,77	2	Navaridas	569	717	12,80	0,79	1
Armiñón	619	689	12,10	0,90	1	Okondo	1141	660	11,70	1,73	2
Arratzua-Ubarrundia	894	650	10,80	1,38	2	Oion	507	718	12,80	0,71	1
Asparrena	1092	629	10,20	1,74	2	Urizaharra	761	661	11,20	1,15	2
Aiara	1160	669	11,60	1,73	2	Erriberagoitia	761	662	11,20	1,15	2
Mañueta	526	714	12,80	0,74	1	Erriberabeitia	609	689	12,10	0,88	1
Barrundia	923	642	10,60	1,44	2	Añana	758	656	11,10	1,16	2
Berantevilla	626	686	12,00	0,91	1	Agurain	872	658	11,10	1,33	2
Bernedo	946	664	11,30	1,42	2	Samaniego	647	694	12,20	0,93	1
Kanpezu	797	667	11,40	1,19	2	Donemiliaga	988	638	10,50	1,55	2
Zigoitia	1081	628	10,20	1,72	2	Urkabustaiz	1201	657	10,80	1,83	2
Kripan	744	691	12,00	1,08	2	Gaubea	769	638	10,50	1,21	2
Kuartango	1041	643	10,50	1,62	2	Harana	972	641	10,60	1,52	2
Burgu	857	656	11,00	1,31	2	Villabuena	573	712	12,70	0,80	1
Eltziego	498	725	13,00	0,69	1	Legutio	1123	630	10,20	1,78	2
Elvillar	641	716	12,80	0,90	1	Gasteiz	850	659	11,10	1,29	2
Iruraiz-Gauna	842	658	11,10	1,28	2	Ekora	559	715	12,70	0,78	1
Bastida	567	681	11,80	0,83	1	Zalduondo	1041	631	10,20	1,65	2
Lagran	851	666	11,30	1,28	2	Zambrana	615	676	11,70	0,91	1
Guardia	586	712	12,70	0,82	1	Zuia	1191	626	10,20	1,90	2
Lantziego	549	724	13,00	0,76	1	Iruña Oka	800	667	11,40	1,20	2
Lapuebla de Labarca	452	732	13,20	0,62	1	Lantarón	629	673	11,60	0,93	1
Leza	667	701	12,30	0,95	1						


2. taula BIZKAIKO udalerrien zonakitze klimatikoa, IPCCren sailkapen-ereduaren arabera (IPCC, 2006). MAP: prezipitazioen urteko batez bestekoa (mm); ETP: ebatoptranspirazioa (mm); MAT: tenperaturaren urteko batez bestekoa (°C). MAP/ETP: prezipitazioen eta ebatoptranspirazioaren urteko batezbestekoaren arteko ratioa. Zona klimatikoa (ZK): ZK 1: epel beroa, lehorra; ZK 2: epel beroa, hezea. Udalerri bakoitzeko datu klimatikoak [MITECO \(SIFA\)ren Nekazaritzako Datuen Informazio Geografikoko Sistematik](#) eskuratu ziren.

Udalerrria	MAP	ETP	MAT	MAP/ETP	ZK	Udalerrria	MAP	ETP	MAT	MAP/ETP	ZK
